



EUSKARA-GAITASUN AGIRIAK

Hizkuntza-maila frogatzeko
aski izango da ikastorduen erdiak
euskaraz egitea



- **Bingen Mendizabal** «Talde transgresore bat agertu orduko Grammy batekin saritzen dute»
- **Sortzaileen lan-baldintzak** Hiru adibide krisi garaiotan
- **María Puy Huici Goñi** Nafarroako konkistaren inguruko topikoak hautsi zituen historialaria
- **Morena Herrera** FMLN gerrillatik mugimendu feministara

**Saio
berezia**



Beranduegi.tv



Beranduegiren urtebeteko historia labur bezain bizia azalduko dugu dokumental sakon eta xelebre batean.



Email kate bati hasiera eman behar diozue hilabete honetako lehiaketan parte hartzeko. Emailen Beranduegi zer den era original batean azaldu behar duzue eta zuen lagunen artean zabaldu. Ez ahaztu beranduegi@argia.com helbidea gehitzea, guk ere mezua jaso dezagun. Beranduegiren arima ongien jaso eta ahalik eta lagun gehienengana heltzen diren 3 emailen artean banatuko ditugu sari hauek:

- 1. saria:** Gametxo hotelean 2 lagunentzako asteburupasa + Ilimani argazki-liburua + ARGIAren urtekaria + ARGIAren 6 hileko harpidetza doan
- 2. saria:** Txondorra erretegia 4 lagunentzako otordua + ARGIAren urtekaria + ARGIAren 3 hileko harpidetza doan
- 3. saria:** Tolosako kartingean bueltaxka 2 lagunentzat + ARGIAren urtekaria + ARGIAren 3 hileko harpidetza doan



www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Deabruaren abokatua

- **Joxe Rojas:** «Gero eta zailagoa dugu deskonektatzea». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Euskara-gaitasun agiriak.** Euskaratik salbuesteko plana. MIEL A. ELUSTONDO / 5

Pertsonaia

- **Bingen Mendizabal:** «Espektakulua dagoen tokian gezurra eta fartsa dira nagusi». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Morena Herrera:** «Emakumeek orain badakite eskubideak dituztela». HARTZEA LOPEZ ARANA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Beldurraren egiak. UXUE APAOLAZA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Iruñea Digitala 2013.** KOLDO ALDALUR / 22
- **Txandan** Miren Azkarate. JOSU AMEZAGA / 22
- **Valentziako hiritik dator notizia.** FERMIN ERBITI / 23
- **Hiruko txikian** Atez atekoa. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Galdetxeari jarriak. JULIO SOTO / 24

Erdiko kaiera

- «Ama, artista izan nahi dut!». IRATXE ESNAOLA / 25
- **Musika.** Norte Apache, azalgorrien irrintzia. ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 28
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** JON TORNER / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Nafarroako konkista.** 1512ko topikoei aurre egiten. URKO APAOLAZA / 39
- **Zerga sistema.** Herritarrek multinazionalak bezainbeste ordaintzen dute. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Mazin Naif Rahim, Irakeko buruzagi mandeoa:** «Gurea zen Kristoren hizkuntza». KARLOS ZURUTUZA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Fukushima hondamendiaren lehen urteurrena. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Euskal Harriak.** IÑAKI MENDIGUREN / 50



“Gero eta zailagoa dugu deskonektatzea”

Joxe Rojas

Barakaldokoa naiz eta daukat
HTC Hero Android bat.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Aizu...

Meeek! Aspalditxo saldu nuen eBayn Samsung Galaxy S bat erosteko, hori ere Androidekin. Hurrengorako hobeto dokumentatu, e?

Tira, berdin dio; seguru elkarrizketa hau ateratzerako beste maxina bat izango duzula.

Bizio garestia da eta aurrekontuak ez du ematen... Eta hain azkar ateratzen dituzte maxina berriak non sarritan pista galtzen dudana. Komeni da arnasa apur bat hartzea batetik bestera.

Izan ere, oinarri-oinarrizko beharrianak asezteko baitira teknologia berriak.

Zaila da oreka non den jakitea. Telefono aurreratu batek uneoro konektatuta egoteak aukera ematea handia da gauza batzuetarako; baina morrontzak ere badakartza.

Bota, bota...

Gero eta zailagoa dugu guztiz deskonektatzea, bereiztea noiz zauden lanean eta noiz ez; gero eta menpekotasun handiagoa dugu telefonia hornitzaileekiko...

Guk erosi baino, saltzen ez ote dizkiguten...

Zalantzarik gabe! Horrelako gailuek oso marketin makinaria indartsua dute, eta kontuz ibili ezean sinetsarazi dizute ez zarela inor halako edo halako trastea erosten ez baduzu.

Erostea da gauza bat; beste bat erabiltzea.

Bai. Marketin makinariok modak sortu dituzte. Sarritan amorratzen naiz ikustean zenbat

jendek erosi duen sekulako trastea —eta sekulako datu-tarifa—, funtzioen erdiak sekula ulertuko ez baditu ere.

Baina teknologia berriak oso ondo daude, ondo dauden bitartean, noski.

Gutako zenbat sentitu da guztiz ezdeusa argindarrik gabe geratzen? Eta alderantziz, zenbatek pasatu dugu sekulako tartea ez dakit zer okurrentzia Twitter bidez jarraitzen?

Ados: izateko, sare sozial birtualetan behar dugula egon.

Ez da derrigorra. Duela oso gutxira arte primeran bizi izan gara horiek gabe. Baina sare birtual horietan oso aukera politak sortzen dira.

Internauta euskaldunik sexyena hautatzekoa, esaterako.

Adibide tonto, baina argia: batek harrikada izan, beste bati gustatu, hirugarrenak erronka bota eta, konturatzerako, 50 lagun gala moduko batean. Eta adibide praktikoagoak ere badira: greba orokorren jarraipena, adibidez.

Hara zer dakarren teknopatiak; batzuk gutxiagogatik daude eroetxean.

Bakoitza bere frikiak bizi du. Inguruan badi-tut zortzi orduko lanaldia Gozategiren disko berbera entzuten pasa dezaketenak edota euskal hitzun tipologiez mintzo emozionatzen direnak. Zoroetxe erraldoi batean bizi gara! ■



Euskara-gaitasun agiriak

Euskaratik salbuesteko plana

Dekretu zirriborroa aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak joan den udazkenean. Euskara ziurtagiriak aurkeztetik –eta horiek lortzeko azterketak egitetik– salbuetsiko ditu ikasle asko. Ikusi dugunez, dekretuaren kontrako ahots eta iritziak bat baino gehiago dira.

MIEL A. ELUSTONDO

DANI BLANCO



EGA eta bestelako euskara azterketak prestatzera doa jende asko euskaltegira. Irudian, Donostiako euskaltegi bat.

JOAN DEN URRIAREN 3AN irakurri genuen berria. Euskaraz ikasi duten ikasleak hizkuntza horren ezagutza bermatzeko agiriak aurkeztetik salbuetsiko ditu Eusko Jaurlaritzaren dekretuak. Ikastorduen erdia euskaraz egitea erabiliko du langa Gobernuak –ikusi 6. orrialdeko koadroa–.

EAEko Hezkuntza sailburu Isabel Celaák eta Kultura sailburu Blanca Urgellek egun hartan egindako agerraldian adierazi zutenez, ISEI Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak 2004. eta 2006. urteetan egindako ikerketak oraingo dekretua sustengatzera datoz. Alta, ikerketa

**Ikasle guztiak zaku berean
sartzen dira. "Ezin dira Gasteiz eta
Aulesti konparatu, adibidez".
Dekretuak ez du aintzat hartzen
inguruko egoera soziolinguistikoa**

horien arabera, ikasle gehienek Lehen Hezkuntzako 6. mailan B1 maila gainditzeko moduko ezagutza izaten dute, eta DBH bukaeran B2ra heltzen dira. Dekretuak atzera begirako eragina izango duela ere esan zuen Hezkuntza sailburuak, eta, horrela, 2008ko apirilaren 16tik aurrera lortutako titulu guztietan izango duela eragina. Inondik ere, egun horretan homologatu zituzten Eusko Jaurlaritzaren tituluak eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria- tuak seinalatzen dituenak.

Kontrako iritzien arabera, ikasketen truke tituluak eman beharrean ikasleak titulu horiek aurkeztetik salbuetsi nahi ditu Jaurlaritzak. Aldiz, tituluak ematea baino bide egokiagoa eta "normalizatzaileagoa" dela esan zuen Kultura sailburuak. Hezkuntza arduradunak gaineratu zuen dekretuarekin euskaraz ikasten duten ikasleenganako "injustizia" amaituko dela, euskaraz ikasi ostean ez zaielako maila frogatzeko eskatuko, gaztelaniarekin horrelakorik ez dela gertatzen. Dekretuak ikasle askorentzat "askatzea" ekarriko duela, "askok orain dirua eta denbora xahutu behar dutelako euskara maila frogatzen". Laster etorri ziren beste-lako iritziak, euskararen aldeko normalizazio lanean gogorren ari diren sektoreetatik etorri ere.

Euskaratik salbuesteko dekretua

Esaterako, gaiari lotu zitzaion Lionel Joly *Jakin* aldizkarian egin ohi duen analisisan. Iraila-urriko 186. zenbakitik ari gara, non *Udazkeneko saltsa soziolinguistikoa* izenburupean idatzi baitzuen Jolyk: "Euskara normalizatzen ari da, euskararen egoera soziolinguistikoa normalizatzen ari da, hori da Eusko Jaurlaritzaren azken dekretuaren aurkezpenetik atera daitekeen ondorioa". Dekretuaz ari, eta "euskaratik salbuesteko dekretuaz" ari zela idatzi zuen, eta gaineratu: "Euskara salbuespen egoeratik atera nahi bada, esan nahi du euskararen egoera normala ez zela eta dekretu bidez gauzak normalizatuko direla, salbuespen egoeratik egoera normal batera iristeko... euskararen egoera normala dela frogatzen saiatzea neurri batean oiloei hortzak bilatzea bezalakoa litzateke". Soziolinguista honen aburuz, egia da euskararen bidean "hobekuntzak ageri direla, baina beste fronte batzuetan, funtsezkoak direnak eta hizkuntzaren egoeraren normaltasuna adierazten dutenak –hizkuntzaren eguneroko erabilera arruntak, arnas guneak eta abar–, aurrera ez da egin, baizik atzera".

Lionel Jolyk bi ariketa soziolinguistikoa egin zituen *Jakineko* artikuluan. Batetik, Jaurlaritzak prentsaurrekoan agertu zuen diskurtsoa aztertu zuen; bestetik, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa buruz agintariek agertu zituzten iritziak.

Isabel Celaáren hitzok hartu zituen hizpide: "Ez da normala herrialde batek herritarrei beren hizkuntza ofizialean inolako hizkuntz ziurtagiririk exijitzea administrazio publikoan, adibidez, lanpostu batera sartzeko orduan". Jolyk, normaltasunari buruzko

Baliokidetasunak

Hona tituluak aurkeztetik salbuesteko dekretuak baliatuko dituen oinarriak:

B1 maila. DBHren erdia euskaraz ikasi dutenentzat. Garai bateko 1. Hizkuntza Eskakizunaren baliokidea da. Euskarazko testu argietako ideia nagusiak ulertzeko gaitasuna dute B1 dutenek; oinarritzko gaitasuna dute ahozko komunikazioan eta idaztean.

B2. Batxilergoaren erdia euskaraz ikasi dutenentzat. 2. Hizkuntza Eskakizunaren baliokidea da. Testu zehatz edo abstraktuen ideia nagusiak ulertzen dituzte maila honetan, solasaldietan erraz molda daitezke, eta gai askori buruz idazki argi eta zehatzak egin

ditzakete. Bi mailotan, B1 eta B2, ikasleek, ezarritako ikastorduak betetzeaz gain, Euskara eta Euskal Literatura ikasgaia gainditua izan behar dute.

C1. Unibertsitate ikasketak euskaraz egiten dituztenentzat. EGAREN baliokidea da. Nolabaiteko zailtasuna duten testu luze mota asko uler ditzakete C1 lortu dutenek, esanahi inplizituak barne.

C2. Doktore tesia euskaraz egin dutenak eta hainbat titulu dituztenak. Entzun eta irakurtzen den ia guztia ulertzeko gaitasuna eskatzen du C2k. Erraz komunikatu daitezke ahoz eta idatziz, zehaztasun handiarekin eta era ondo egituratuan.



ZALDI ERO

gogoeta egin ondoren, dio: “Hainbat herrialderen kasuan, haien egoera soziolinguistikoa kontutan hartuta, egia da bertoko hizkuntz ziurtagiririk eskatzea zentzugabekeria litzatekeela, normala ez litzatekeela. Baina euskararen, Euskal

Herriaren egoera soziolinguistikoa, ez da herri horien egoera, eta agian beste testuinguru batean normala ez denak zentzua du hemen, bertoko testuingurua kontuan hartuta, eta erabat normala beharko luke izan, egoera aldatzen ez den bitartean behintzat. Bilbo ez da Paris edo Londres, euskara Bilbon ez da frantsesa Parisen edo ingelesa Londresen. Horregatik, hezkuntza sistema, hizkuntza politika eta hizkuntzen ziurtagirien kudeaketa han eta hemen ezberdin egin behar da. Baina Parisen eta Londresen ere gauzak ez dira hain sinpleak”. Prentsaurrekoan sailburuek adierazi zutenez, “euskara normaltzeko, herrialde normal batean bizi garela eta herri honek hezkuntza-sistema normala duela onartu behar dugu”, eta, soziolinguista honen erantzuna: “Euskal Herria herrialde normala da, zalantzarik gabe, baina bere ezaugarriak ere baditu eta horietariko bat eleaniztasun sozial desorekatua da, eta ezaugarri hori kontutan hartu behar da, bereziki hizkuntzak eta hezkuntza ereduak kudeatzerakoan”.

Lionel Jolyri interesgarri zitzaion bigarren azterketa ere, hau da, diskurtsoari zegokiona: “Ikustea nola krisi ekonomikoa eta diskurtso instrumentala zabaltzen ari diren gizartean”.

“Euskaltegiok %30eko galera izango omen dugu ikasleetan. Hori horrela gertatuko da, ala hori gerta dadin bideak jarriko dira?”

JON ZABALA, MAILU LASARTE, IKA

Agintarien hitzok ondoren: “Gaur egun 37.000 pertsona ari dira euskara ikasten HABEko euskaltegietan. Haien artean, laurden bat baino gehiago 16 urtetik 25era bitarteko gazteak dira eta salbuesteari buruzko dekretuak onurak ekarri ahal

dizkie, azterketetara aurkeztu behar ez izateak dakarren dirua eta denbora aurreztearekin. Baina ez da diru kontua bakarrik. Ezin dugu onartu gazteek beren urte onenak ezertarako balio ez duten alferrikako tramiteetan murgilduta ematea”. Eta Jolyk, zorrotz eta ozpin: “Noski, ikasle gutxiago bada euskaltegietan irakasle gutxiago beharko da eta krisi garaian administrazioarentzat hori garrantzitsua da. Euskararen aldeko hizkuntza politikarik ez egiteak ere diru gehiago aurreztuko luke baina, agian, eta momentuz, horrek koste sozial eta politiko handiegia suposatuko luke”.

Paris eta Londresko ereduez ere mintzatu da soziolinguista: “Nola egiten ote dute Parisen eta Londresen langile egokiak, hizkuntza ‘behar den bezala’ dakitenak kontratatzeke? Parisen frantses ziurtagiririk eskatzen al da? Gehienetan ez, gaitasuna ziurtatzeko modua askoz errazagoa, naturalagoa da: administrazioan zein enpresa pribatuetan sartzeko, hautapen prozesuan zehar hainbat ariketa ahoz, idatziz, elkarrizketa eta abar egiten da. Ariketa horietan guztietan hautagaiak hizkuntza erabili behar izaten du eta beraz prozesu osoan bere hizkuntza gaitasuna neurtzen da eta ondo-



"Krisi ekonomikoa eta diskurtso instrumentala zabaltzen ari dira gizartean"

LIONEL JOLY,
SOZIOLINGUISTA

dundu omen dira. Horiatarik 100.000 euskaltegien lanari zor zaio. Bada zerbait, gero. Zenbat gastatu dute Hezkuntzan, 200.000 horiek produzitzen? Zenbat dirurekin euskaldundu ditugu guk euskaltegietan, hau da, gainerako 100.000 horiek? Esan ere egin genion Baztarrikari: 'Kontuak atera, mesedez, egin kalkulua, Hezkuntzara bideratzen duzuen diruaren hamarrenarekin erdia produzituko genukeen'. Miren Azkarateren garaian ere ez zen diferente izan, euskaltegiak bai, baina ez. Azkarateren arabera, Hezkuntzak euskaldundu behar zuen Euskal Herria. Edo EAE. Baina 30 urtean ez du egin".

Zer esan die Jauralaritzak euskaltegiei? "Bost urtean %30eko ikasle galera izango dugula. Plan estrategikoa dio hori, EAEko euskaltegiez ari dela. Zerk eragingo du jaitziera? Besteak beste, dekretu zirriborro honek, hau da, hainbat lagun agiriak aurkeztetik salbuesteak. Bestalde, hor da beti krisia. Ekonomia. Gure galdera zera da: %30eko galera izango omen dugu ikasleetan. Hori horrela gertatuko da, ala hori gerta dadin bideak jarriko dira? Azken finean, egiten den hizkuntza politikaren gorabeheran dago hori", esan digute Zabalak eta Lasartek.

IKAko arduradunon iritziko, hainbat lagun euskara agiria aurkeztetik salbuesteak ez du onik ekarriko. "Ikasle horietarik asko funtzionarioen bidean sartuko dira, euskarazko gaitasun hartzaile bai, baina sortzaile izan gabe. Itxuraz bai, euskaldunak izango ditugu Lakuan —eman dezagun, Jauralaritzaren egoitza nagusian—, baina gaztelaniaz zuzendu beharko gara hara. Horri dagokionez, esaterako, badugu Trebakuntza Programa bat abian. Haren bidez hemeretzi irakasle ditugu Lakuan, lanean, EGA edo laugarren mailako tituluaren jabe diren langileei euren lana egiten laguntzeko. Ahozko zein idatzizko erabilerak bultzatzeko modua da". Agiriak aurkeztetik salbuesteak, berriz, otar berean jarriko ditu nahasian euskaldun hartzaileak eta sortzaileak. "Askok euskarazko agiriak ematen

erioz, modu errazean, naturalean kanpoan gelditzen da hizkuntz gaitasun nahikorik ez duena (edo estandarrarekin ondo moldatzen ez dena). Naturaltasuna, normaltasuna aldarrikatu badira dekretua defendatzeko, ondoriozta genezake, beraz, laster administrazioetan sartzeko frogak euskaraz egingo direla... baina noski, testuinguru soziolinguistikoak ezberdinak dira".

Euskaltegiak, bigarren mailako seme-alabak

Jon Zabala eta Mailu Lasarte izan ditugu solaskide. Biak ere IKA euskaltegiaren zuzendari dira Gasteizen. Galdezka joan gatzazkie eta, elkarrizketaren harian, min zorneak ere agertu dira: "Oraingo Gobernuak esan bai —eta lehengoak ere berdin—, euskaltegiak hau eta hura, baina gu bigarren mailako seme-alabak izan gara beti. Sektore estrategikoa garela esaten digute, beti. Azkena, joan den irailaren 27an entzun genuen". Egun hartan agerraldia egin zuten euskaltegiek Gasteizko Legebiltzarrean. Euskaltegiek hitz egin zuten, eta baita alderdietako ordezkariak erantzun ere. "Gure alde hitz egin zuten denek! Baita PPK eta UPDk ere. Gure alde, zalantzarik gabe. Eta, hortaz, zer pasatzen da hemen? Mundu guztia ados, Aralar, EAJ, PSE-PSOE —baina ez dago dirurik—, esaten zuten sozialistek—, denak ados, 'sektore estrategikoa' eta gainerakoak. Orduan, zer?".

Esatekoak dituzte bi arduradunok, esateko zahar eta berriak: "Hizkuntza Politikarako sailburuorde ohi Patxi Baztarrikak idatzia du, joan deneko 25 urtean 300.000 lagun euskal-

Blanka Ugarte, Gasteizko Hegoalde euskaltegiko zuzendaria «Agintariak arazo bat dute Hezkuntzan, baina estali nahian ari dira»

Egina duzue gogoeta dekretuaren inguruan.

Gozoki pozoitua da. Neurri popularra, oparia jen-dearentzat, baina euskararen kalitatearen kontra egiten duena argi eta garbi eta behin indarrean jarritz gero, atzera egiterik ez duena. Gurea oso euskaltegi txikia da, ez dugu pisurik sektorean, eta eragin handia izango du gure geroan. Urteko batzar nagusian hitz egin genuen. Hemeretzi kidek osatzen dute zuzendaritza batzordea, badira adinekoak, oso adinekoak, eta gazte sasoikoak. Bada, zaharrenek jo zuten gogorren: “Dekretua hau? Manifestazioa egin behar dugu! Euskaltegiak bildu behar ditugu”. Horretan gaude oraindik. Irabazi asmorik gabeko elkarteak gara lanean.

Kalte egingo dizuela esan diguzu...

Gure euskaltegiari, bai. Neurri ekonomikoa da. Celaák zioenez, ez da normala hizkuntza egiaztatzea eskatzea. Ez da normala? Euskararen egoera ere ez da normalizatu! Diskriminazio egoera bizi du. Celaák esan zuen beste hori ere, “ikerketak zientifikoteknikoa” hartu zutela oinarrian. Bai, eta helburua duzue politikoa, eta ekonomikoa! ISEI-IVEIren ikerketaren emaitzak ezagutzen ditugu, ondo ezagutu ere, eta emaitzak ez ziren onak. Esaten zuten 16 urtera arte curriculumaren %50 baino gehiago euskaraz egin duenak B1 maila ez izatea, hezkuntza sistema kuestionatzea dela. Irakasle konpetenteak, material konpetenteak, habitat konpetentea aipatu zituen Celaák. Bada, irakasleak eta materialak alde batera utzita, Gasteizen, habitat delako hori ez da oso konpetentea, ala?

Euskaltegiaren geroaz mintzatu zatzaizkit...

Gerora, askoz jende gutxiago etorriko da. Jendea, euskara maila aurkeztetik salbuetsita egongo delako.

Hara, guri B eta D ereduak hainbat jende etortzen zaigu Gasteizen. 17-18 urte dituzte, EGA atera nahi dute, baina ez dute C1 mailarik. Dena euskaraz eman dutenak ere, larri. Hor zerbait gaizki ari gara egiten. Ikastola jakin batean, D ereduak ikasten ari diren irakasleak ditugu, EGA prestatzen. Horien %20k gaitu ohi du frogak lehenengoan. Irakasle horiek, oro har, ez dute mailarik, eta geroan ez zaie exijituko. Tituluaren mailako aitortza emango diete, mailarik izan gabe. Dekretua euskararen kalitatearen kontra doa, zuzen-zuzen. Eta ondoko belaunaldien mailan ere eragingo du. Beste kasu bat: ikastetxe jakin batean H ikastaroa ari gara eskaintzen, hau da, EGAtik gorako ikastaroa. Irakasleak EGAdunak dira, baina ez dutenez euskaraz hitz egiteko ohiturarik, maila galdu dute. Egoera iraultzen saiatzen ari dira orain... Bai, agintariak arazo bat dute Hezkuntzan, baina estali nahian ari dira.



ZALDI ERO

Blanka Ugarte, Jose Mari Mouriz Altunarekin,
Gasteizko Hegoalde euskaltegiakoak.

duen mailaren aitortza izango dute, baina ezingo dute euskara erabili, ez dutelako jakingo; ez bere lana egiteko beste, behintzat. Elebidun hartzaile dira, baina ez sortzaile. Eta nola emango diogu C1 mailako eskola, C1 maila aitortua dioten bati? Barkatu, baina kristo bat iruditzen zaigu. Hezkuntzak teoriarik eman behar duena emango balu, ados ginateke. Bestela, ez”. Ikasgaiaren erdia euskaraz egin duten guztiak zaku berean sartu, ez: “Ezin dira Gasteiz eta Aulesti konparatu, adibidez”. Horra inguruko egoera soziolinguistikoaren garrantzia, dekretuak aintzat hartzen ez duena.

Erreportajea ontzen ari ginela, berriz, Eusko Jaurlaritzaren jakinarazpena joan den

otsailaren 17an. “Euskara-maila egiaztatze-ko azterketen matrikula epeak irekitzeaz dauden honetan, Hezkuntza Sailak eta Kultura Sailak gogorarazi nahi dute dekretu berri bat tramitatzen ari dela, administrazio publikoan lanpostu bat lortu nahi duten eta ikasketak euskaraz egin dituzten pertsonak hizkuntzen ziurtagiriak aurkeztetik salbuestiko dituenak (administrazioetik kanpoko beste lanpostu batzuei ere aplikatuko zaizkie salbuespen horiek, irakaskuntza pribatuko eta euskaltegiak bezalako beste zentro homologatu batzuetako irakasleei esate baterako)”. Eta tar-tar-tar, eman suari egurra. ■



Bingen Mendizabal

«Espektakulua dagoen tokian gezurra eta fartsa dira nagusi»

Ikasketak gorrotatzetik estudioak maitatzera pasa zen.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Ikasle txarra omen zinen.

Ikasle garaian, ikasketekin soilik arduratu behar zarela dirudi, denak errenditu behar garela moldera, baina horrek ez dauka bizitzarekin zerikusirik. Ni 3. BBBrako jabetuta nengoen asko aspertzen nintzela, arbelean esaten zirenak zein esateko moduak ez nindutela ez asetzen ez akuilatzen, eta hor erabaki nuen nirea musika zela. Eskolan irakasten dena metodo lehiakorra da, besteak baino hobe izatea, baina horrek ez darama inora. Esaterako, politikan dena da lehia, baina zertarako? Musikan eta artean saiatu dira logika hori txertatzen *Operación Triunfo* eta orotariko lehiaketen bidez, baina ez dauka zentzurik. Etengabe gizarte lehiakorragoa bultzatu beharrean, gizarte kooperatiboagoa ezarri behar genuke plantan, eta horren hazia eskolan ereiten da. Bestela, ikusi besterik ez dago, gizartearen erreferente gehienak kirolariak dira. Mundu euskaltzalera lerratuz, haluzinatuta geratzen naiz zenbat bertsolari eta trikitilari txapelketa dagoen ikusita. Artea lehiara eramateak senetik ateratzen nau. Bat Formulako txapelduna izateak pertsona hobe bat egiten zaitu? Berdin-berdin izan zaitezke idiota galanta! Antzekoa gertatzen zait lehen mailako deritzoten musika jaialdiekin. Halakotara arrimatu eta “hau nazka!” irteten zait. Hor egoteko asko irentsi behar da, dena ez dela ofizioa eta profesionaltasuna argi izan. Zorionez, konturatu gara heziketa horrek irabazle/galtzaile gizarte bat sortzeko baizik ez duela balio, eta gainera, irabazleak tranpa eginda gailentzen direla. Baina badakizu, irabazleak botereitsuak dira, eta irabazi dutenez, ukiezinak.

Kultura ez dago eskema horietatik at.

Ikusten dugun orok babes instituzionala behar duela dirudi, dena dagoela erakundeen menpe, eta erakundeetan lan egiteko tituluak eskatzen dira. Noiz arraio hitz egingo dugu espresioaz? Pintatzen edo musika egiten hasten zarenean ez zara diploma bat ateratzeko hasten, ezta? Ados, ofizioari dagozkion tituluak behar dira, baina ezin dute bakoitzaren barne-espresioaren zentzuaren gainetik egon. Baina ez, masterrak kolekzionatzea eta lehiaketak irabaztea hartzen da kontuan, eta hori hala den bitartean, dena oso kontrolatuta dauka sistemak. Begira zer egiten duten AEBetan. Talde transgresore bat agertu orduko Grammy batekin saritzen dute, industriara erakarri, euren berezko indarra lapurtu eta arrastoan sartzeko. Sistemak dena asimila-

Nortasun agiria

1962ko abenduaren 5ean sortu zen Gasteizen. Herriz herri Hertzainak taldearekin ibili ostean, 1989tik hona, pelikuletako soinu-bandak arrakasta handiz egiten dihardu. *Alas de Mariposa*, *Airbag*, *Secretos del corazón*, *El juego del ahorcado* edo *Arriya* bezalako filmak bere notekin girotu ditu eta han eta hemen sari ugari jaso du (2009an Goya sarietarako izendatua izan zen). Horrez gain, *Bar Puerto* eta *Zaharregia*, *txikiegia agian* egitasmoetan ibili da Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberekin.





tzen du. Pentsa, zenbateko konpetentzia desleiala egiten dion kultura ofizialak subentzionatua ez dagoenari. Antzoki onenak dauzka, azpiegitura sendoenak, zabaltzeko medioak... Horrek gizartea erakundeen inguruan egituratzea ahalbidetu du, funtzionario kopurua emendatuz, eta sosak urritu direnean, dagoen apurra funtzionarioei ordaintzeko erabiltzen da. Antzerkian urtetan aritu den batek baino gehiagok esango dizu dena uzteko puntuan dagoela, baina programatzaile, antzokiko zuzendari eta abarrek hor jarraituko dute. Ez dago sistema hau baino perbertsoagorik. Azpiegiturak mantentzen dituztenek lana daukate eta artistek ez, teorian azpiegiturak horiek sortzaileentzat eraiki ziren arren. Espero dut etorriko dela horri aurre egingo dion mugimendu sakon bat, baina momentuz, sistemak oso domestikatuta gauzka.

Euskal Rock Erradikala, domestikatzearen aurkako mugimendu transgresore bat izan zen?

Mugimendu itzela bezain garrantzitsua izan zen, ordura arteko gazteriaren irudiarekin erroto puskatu zuena, beste bizimodu baten aukera zabaltu zuena. Gustatzen zitzaizuna egin zenezakeen, ez zenuen estudiantik pasa beharrik, jotzen jakin gabe ekin zeniezaiokeen... Benetako espresio leherketa bat. Pilatutako amorruak haize fresko ufada goxoa ekarri zuen, frankismoko egitura antolatzaile, ordenatzaile eta kontrolatzaileak hankaz gora jarritz. “Zer arraio, beti horrela?” egin zuen

“Kultur azpiegiturak mantentzen dituztenek lana daukate eta artistek ez, teorian azpiegiturak sortzaileentzat eraiki ziren arren”.

oihu gizarteak, eta ordura arteko ordena guztia irauli zen. Gaztetxeak agertu ziren, kontzertuak ugaritu, eta kultura ofizialaren zinezko alternatiba bat eratu zen. Errebeldia mugimendu bat izan zen. Mugimendu inkonformista bat, abertzalea baino gehiago. Jende gaztea nazkatuta zegoen, beste zerbaite nahi zuen, eta etorkizunik ez bazegoen oraina atsegin izan zedila. Horrek drogak eta orotariko gehiegikeriak ekarri zituen. Ez gaitzezen engaina, dena ez zen arrosa izan. Bere garaian asko mitifikatu zen dena, baina oxala eragin handiagoa izan balu eta orduko arrastoak oraindik nabaritutako balira.

Zuk Hertzainaken kontzertuen adrenalinatik zinemako soinu banden konposizio lan bakartira egin zenuen jauzi.

Hertzainakekin ari nintzela, konposizioa ikasten nuen kontserbatorioan Karmelo Bernaolarekin. Juanma Bajo Ulloa zuzendariarekin topo egin eta *Reyno de Víctor* film laburrean kolaboratzea proposatu zidan. Dena primeran joan zen, oso film labur saritua izan zen, eta hortik etorri zen *Alas de Mariposa*-ri musika jartzeko aukera. Filmari Urrezko Maskorra eman zioten Donostian, eta soinu-bandari idazle zinematografikoen zirkuluko saria. Hortik landa berez-berez etorri zait lana. Pixkanaka, Hertzainaken adrenalina purua estudioko berehalako emaitza eta oihartzunik gabeko lan orduen metaketarekin trukatut nuen. Hori bai, gogoan dut *Alas de Mariposa* publikoarekin

lehen aldiz ikustea izugarri zirraragarria izan zela. Izan ere, musikak onerako zein txarrerako eragin dezake istorio baten kontaketan. Ni nire gustu eta estiloen arabera pelikulan ondo funtzionatuko duten piezak sortzen saiatzen naiz. Adibidez, komedia batekin banabil, apenas sartuko dudak sokazko instrumenturik, soke dramatismo karga areagotzen baitute. Pelikula arintzen duen melodiaren bila ibiliko naiz, gag-ak azpimarratu gabe komedia kutsua duen musika baten xerka. Izan dezala ingenuitate puntu bat, ongi sentiarazi gaitzala.

Zaila da beti dagokizun lekuan egotea, nabarmendu gabe nabarmentzea?

Horixe zailena. Beti egon behar duzu kontatu nahi den istorioaren mailan, ez beherago, ez gorago. Lantalde osoak ez badio lema horri eusten, eta bakoitzak bere gisara egiten badu arraun, *malo!* Zinematik irtenda sarri entzuten da, “zer ona den aktore hori, denak jaten ditu!”. Ba ez, gainontzekoak jaten baditu bere lana oker egin duen seinale. Ezin duzu pelikula bat erabili zer ona zaren erakusteko. Maila ematea dagokizu, baina istorio baten barruan, kontatu nahi denaren mesedetan, zure interes eta egoa lehenetsi gabe. Zinema munduan, ordea, dena da egoa, denok daukagu gurea, baita nik ere. Horregatik, bere lozorroan atxiki behar duzu, ez dadila atera, ez dezala hitz egin. Berbarako, Hitchcock-en filmetako soinu-bandak hain dira izugarriak, Hitchcocken talentu eta ospearekin soilik orekatu daitezkeela. Gaur egun, sotilagoa izan behar du denak, oharkabean klabea funtzionatzen da. Orekaren izenean, inork ez du ego kontrolagaitzik nahi. Are gehiago, artearen munduan egoa galbidea den konbentzimendua oso zabalduta dago. Alabaina, denok daukagu gurea, zenbat eta gorago orduan eta handiagoa. Gainera, egoak mila aurpegi ditu, eta betiko otzandu duzula

“Ados nago osasun sistemari eustearekin, baina agian liburu batek botikak baino gehiago sendatzen du, musika pastillak baino onuragarriagoa izan daiteke”

dirudienean, edozein unetan lehertu daitekeen munstroa ezkutatzen ari zara. Bistakoa da zinema munduan espektakulu asko dagoela, eta espektakulua dagoen tokian gezurra eta fartsa dira nagusi.

Megaupload auzia eta Internetetik filmak edo musika jaistea ahalbidetzen duten atariei buruzko eztabaida ere fartsa hutsa da batzuentzat.

Niretzat Internetek industria diskografikoa hondoratzen eta zine-aretoak husten lagundu du, baina erabiltzailearen ikuspegitik primerako aukera da. Bai, erabiltzaileentzat sekulako asmakizuna dena, azken labankada izan da profesioarentzat. Telefonía konpainiek dirutza egin dute gure lepotik, eta bideoak zein musika jaisteko atariek patrikak bero-bero dauzkate. Aitzitik, disko dendak apenas geratzen diren, saltokietan diskoentzat

gordeta zegoen lekua murriztuz doa, eta neurri batean, ongi iruditzen zait horren aurka egin eta produktu artistikoa babestea. Musika, zinemak edo arteak orokorrean, jendearentzat inongo baliorik ez dutela iruditzen zait, dohainik dena ez dela baloratzen. Politikariek hori garbi daukate, eta murrizketak ez dituzte hezkuntzan edo osasungintzan egiten. Ados nago osasun sistemari eustearekin, baina agian liburu batek botikak baino gehiago sendatzen du, musika pastillak baino onuragarriagoa izan daiteke. Baina ez, agintariek kulturak ez duela piperrik balio ebatzi dute, mundu artistikoa izugarri desprestigiatu da, eta inori ez zaiola axola dirudi. Ez dakit nola egiten zaion horri aurre. Nola mantendu errebeldia bizitzak arrastoan sartzen zaitue-nean? Nola transformatu sistemaren atzaparretan ez erortzeko? Batetik ez bada bestetik hipnotizatzen gaituzte, eta gu etxean geratzen gara telebista ikusten eta etengabe burutik behera egiten diguten kaka irensten.

bardoak 2012
 nafarroako taldekako bertso ekimena
 antolatzailea
 nafarroako bertsozale elkartea
 koordinatzailea
argia

MARTXOAK 9 OSTIRALA

ITURENGO HERRIKO ETXeko GANBARAN, 21:00ETAN,
 BERTSO AFARIA
 ERAUNTSI (MALERREKA/ORONÓZ) - LEITZANDI (LEITZA)

IRUÑEKO IRUÑAZARRA JATETXEAN, 19:30EAN,
 BERTSO SAIOA ETA ONDOTIK AFARIA
 BERTZE MALDIKOAK (IRUÑEA/AURITZ)
 RIMAK EXKAKKO (LESACA)

MARTXOAK 10, LARUNBATA

ETXARRI ARANAZKO GAZTETXEAN, 22:00ETAN,
 BERTSO SAIOA
 BILIXKORRIKO (ETXARRI ARANATZ)
 BETERANOAK (BARANAIN)

Informazio osoa eta zurrerak

www.BARDOAK.com

AZKEN HITZA

Buruan zer?

"Ez naiz Mozart, eta ez dut sekula konposizio osoaren ideia buruan izaterik lortu. Ez dut sekula konposizio osoa buruan entzun. Oso zaila iruditzen zait. Nik *rafaga* intuitiboak dauzkat, erritmo edo melodia modukoak, harmonia aldaketa bat... Horren harira, David Lynch zine zuzendari estatubatuarrek bere pelikula arraro baten muntaia bukatzean esan zuenarekin akordatzan naiz beti: 'Orain bai, orain badakit zer egin nahi nuen!'".



Produktu artistikoa babestu beharraz mintzo zara, baina teoriarik horren ardura duen SGAEn nola dabiltzan ikusita...

Denborarekin jabetu naiz klaseko ordezkari izateko bere burua aurkezten zuena ere anbiotsuena zela, altruismoaz gutxien zekiena. Ez da erraza izango goi-kargu horietan ibiltzea, baina geroz eta konbentzituago nago ardura horiek pertsona usteldu egiten dutela. Goizago ala beranduago, denei antzematen zaie kiratsa. Oso zaila da ustel-usainik gabeko politikari bat topatzea. Ez dut ukatzen hastapenean asmo sano, baliotsu eta lagungarriekin sartzan direnik, baina historiak erakusten du poltronak pertsona usteltzen duela. Ez politikan bakarrik, baita lehen maila deitzen dugun guztian ere. Etengabe agertu nahiak, hor egon beharrik, besteak baino gehiago zarela sentitzeak, zepoan harrapatzen zaitu beti. Hori hala, orain SGAEn sartu diren buruzagi berriak lehengoak baino hobeak izango dira? Nire dudak dauzkat.

Dudaz jositako galdera bat: krisi honek zer utziko du?

Erruak Interneti egozten dizkiogun honetan, ez dezagun ahortzi musikariak langabezian uzten hasi zen lehen euskarria diskoa izan zela. Ordura arte, musika entzun nahi zuenak kontzertuetara joan beste erremediorik ez zuen, eta zuzenekoak zen bere ahaleginaren ordaina. Diskoarekin hasi zen musika berezko balorea galtzen, musika ez baita musika bakarrik, ikus-entzuleak jasotzen duen energia deskarga ere bada. Orain diskorik ere ez da erosten, dena dago eskura, dena debalde. Hala, ez da gauza bera orain ehun urte edo gaur musika entzutea. Askoz balio handiagoa zeukan orduan. Orain dena da oso sinplea, baina gauzak zenbat eta errazagoak eta eskuragarriagoak izan, orduan eta balio gutxiago

duela dirudi. Horregatik, imajinatzen dut dimentsio izugarriak hartu dituzten ekimen kulturalak txikitzen joango direla, eta hasieratik abiatu beharko dutela berriz. Instituzioek euren kasa programatzen segituko dute, baina lehengo dirurik ez daukatenez, nekez izango dute garai bateko indarririk, eta ezin izango dute orain bezainbateko konpetentzia desleialik egin. Hortik landa, espero dut urak beren onera itzuliko direla, eta zuzenekoak geroz eta pisu handiagoa hartuko duela.

Sortzaileak dauden artean beti egongo dela bizitza, alegia.

Sormenak sortzailearen bizitzarekin zerikusi zuzena du. Nire bizitza musika jarri diedan pelikulen arabera oroitzen dut. Film horien errepasoak laguntzen dit nire memoriaren kaosa ordenatzen. Horregatik, uste dut sormen prozesuaren lehen etapan zure baitako zentsuratzailerak akabatuta ekin behar diozula lanari. Ez dezala zentsuratzailerak sortzeko duzun energiak baino gehiago agindu, ez zaitzala blokeatu. Zentsuratzailerak hori zure bizitzan izandako zentsuratzailerak guztien baturaren mamua baita: zure gurasoena, irakasleena, erreferentziatzaile izan eta epaitu zaituzten pertsonaena... Mozartek, esaterako, zuzenean konposatzen zuen, bulkada baten gisan irte-ten omen zitzaion dena, eta hori pentsaezina da zure baitan zentsuratzen zaituen mamua badaramazu. Sortzeko nire arma denbora da, egunero nire lana txekeatu ahal izatea. Bai, egunero sortzen ditut hainbat piezatak txatalak, baina era berean, egunero neurtzen dut aurreko egunetan sortutakoa. Horrek segurtasun itzela ematen dit. Ohituraz eta jarraikortasunez lan eginez gero, ez baituzu zure zigilua bilatu beharrik, berez ateratzen zaizu. ■





Elkarrekin bizi eta ikas, elkarrekin bizitzen ikasteko



PARTAIDETZA
EGUNA



EMAITZAK EGITEKO :
Bankoa - Irun

0138 0010 49 0010582377

Integrazio
Batzordea

Larraldea Amotze auzoa
64310 Senpere

Ezberdintasuna barne hartu nahi duen eskola baten PARTAIDE izan.

«Emakumeek orain badakite eskubideak dituztela»

El Salvador-eko FMLN erakundean hurbildu zen Morena Herrera feminismora. Emakumeek gerrillaren barne egituretan ukan esperientziez baliaturik, eraldatze iraultzaileak aurrera jarrai zezaten bitartekoak lantzen segitzen du geroztik, udal arloan besteak beste. Suchitoto herrian, lekuko garapenaren aldeko Colectiva Feministan dihardu gaur egun.

HARTZEA LOPEZ ARANA

Argazkia: Morena Herrerak utzia

SAN SALVADOR hiriburutik Suchitotora doan autobusean, gidariaren eserlekuaren ondoan erantsi kartelak bidaia abisatzen du: “Garraibide honetan ez da emakumeen kontrako biolentziarik onartzen”. 2004an Cuscatlán probintziako udal gobernuek bultzatu ikuspen kanpaina bateko afixa da. Herrira heldzean, gisa bereko beste mezuak irakur daitezke etxeetako paretetan eta plazetan.

“Ez dira berme zigiluak, konpromisoarenak baizik. Segurtasun pertzepzioa emendatzen dute” azaldu digu Morena Herrerak. Pájaro flor jatetxe autogestionatuaren bileran dago, bere etxeko patioan, urteko balantze ekonomikoan murgildurik. Casa Municipal de la Mujer egoitzaren baitan kokatzen da emazteek osoki kudeatu jatetxe hau.

“Oinak lurrean ezartzen dizkidate holako bilkurek. Gauza praktikoak konpondu behar dira, erabaki zehatzak hartu”. Genero berdintasunerako udal politiken antzeko zereginak, funtsean. “Gobernu zentralarekin zailagoa da aitzinamenduak gauzatzea, baina badira eragiteko eta aldaketa nabarmenak obratzeko beste maila batzuk. Hau da gaur egun nire lan esparru nagusia”.

Kalea eta bulegoa, osagarri

Herrerari feminismoaren arloan noiztik eta non dabilen galdetuz gero, erakunde zerranda amaigabea listatzen dizu. Gerla urteetan suspertu zitzaion emakumeen eskubideen alde aritzeko gogo. “Pertsonaltzat jotzen nituen arazo asko ezaugarri globaleko harreman sistema baten barne zirela konturatu nintzen orduan. Emazteek munduko jen-

“Kalean borrokatzeko eskubidea inoiz ez da bazterrera utzi behar. Orekari-alanbre baten gainean zaude, gaur negoziatzen, bihar protestan”

darteetan bizi dugun posizio soziala, esate baterako. Geroztik argi dut: injustiziaren kontra ekiteko merezi duten kausa ugari egonik ere, emazteen gehiengoarekin gertatzen dena da niretzat injustizia esanguratsuena; gainera nire historia propioarekin konektatzen du”. Egoera horiek errazten aldatzeko bideak bilatzen dabil geroztik. El Salvador-eko Gobernuaren eta FMLNren arteko 1992ko bake akordioaren atarian, Las Dignas izeneko kolektiboan sartu zen buru-belarri,

hamar urtez bertako koordinatzaile. “Zapalketa sexista era erradikalean zalantzan jarri zuen talde honek, baita El Salvador osoan erreferentzia bilakatu ere. Pixkanaka zeregin instituzionalagoetara lerratu ginen”. Horrek Gobernuarekin emakumeen eskubide gaietan

jarduteko parada eman zion, eta Herrera El Salvador-eko Emakumearen Institutuko zuzendaritza batzordera pasa zen. Esperientzia horrek ez zuen emaitza nabaririk ekarri. Hortik jalgi zaio lokalki aritzeko bokazioa, “argazki gutxiago eta politika eraginkor gehiago” sustatu nahian.

Cuscatlán probintzia da El Salvador-en udalerrirako bidezkoagoak eta demokratikoagoak eraikitzeko ardura hartu zuen lehena. Emakumeen beharrei eta interesei dagozkien arretak hobetzeko, gaitasunak sendotzea izan zen lehen neurria. “2003an Gasteizen iragan jardunaldi batzuen harira, Euskal Funtsa erakundearen laguntzari esker, prozesu hau lurralde bakar batean sortzea erabaki genuen, zer modutan funtzionatuko zuen ikuskatzeko. Emakumeen aldeko ekintza positiboen diseinatzeko udal unitateak sortu genituen.



Emakume borrokalaria da Morena Herrera: “Deus ez da itzulezina. Beti mailukatzen egon behar duzu”.

Hasieran FMLNko alkatetza zuten herriek baino ez zuten parte hartu. Gaur egun, hama sei dira mekanismo horiek sustatzen dituzten herriak”.

Gauza bat legitimitate instituzionala eta baliabideak lortzea da. Bestea, horren mar txan ezarri eta iraunaraztea. “Deus ez da itzulezina. Beti mailukatzen egon behar duzu”. Mugimendu sozialak konfrontaziotik kudeaketara pasatzeak harentzat zer suposatzen duen azaldu digu: “Kalean borrokatzeko eskubidea inoiz ez da bazterrera utzi behar. Agintariekin lanean hasten zarelarik, orekari- alanbre baten gainean zaude, gaur negoziatzen, bihar protestan. Baina nire ustez, mugimenduak esparruak konkistatuz indartu egiten dira, espazio instituzionalari ere lekua irekiz. Eta orduan gauza berri ugari dira gertatzen. Hobekuntzak puztu gabe, aldaketa garbia sentitzen da jendeen baitan. Emakumeek eskubideak dituztela dakite orain, subjektuak direla”. Bortxaketa kopuruen inguruko datuak hartzen ditu adibide. “Biolentzia oso hedatua dago, baina ez bada horren erre- gistratzeko zerbitzu publiko berezirik, isildu- rik gelditzen da. Suchitoton, 2010ean, komi- sarian lau kasu baizik ez ziren erregistratu. Poliziarekin hitzarmena gauzatu genuen ongi genekielako zenbaki hori errealtatetik oso behera zegoela. Polizia etxean, salaketa eta arre- ta bulegoak atak ireki zituen handik den- bora gutxira. Miseriarik gabe aritzea erabaki genuen, horretarako baliabide eta eskumen legalak erabiliz. Poliziek trebakuntza ikasta-

roa jaso zuten eta harrera bulegoa polizia etxearen sarreran instalatu zen, denen age- rian. 2011ko ekainean, 46 kasu berri zeuden mahai gainean. Horrek, emakumeak entzu- nak eta sostengatuak diren kanal publikoa egonez gero zer emaitza lor daitezkeen ikus- teko aukera ematen dizu”.

Diagnostikoetatik emaitzetara

Biolentzia, segurtasuna, osasuna, aisia... Beste tokietan eragin nahiko luke Herrera- k, elkar- te anitzen bitartez. Karibe eta Latinoa- merikako emakume eta habitat sareko partai- dea ere bada. Bertan, espazio publikoak eta planifikazio urbanoak nola antolatu hausnar- tzen dute, diskriminaziorik eta arriskurik gabe biztanle guztiek osoki erabili ditzaten. Kaleen argitze sistemak galdeginez, besteak beste, gaez lasaiago ibiltzeko. Edo kirol guneen erabilpenak: “Suchitoton inkesta burutu genuen, nork eta nola erabiltzen dituen jakite- ko. Desberdintasun nabarmena dago bi gene- roen artean. Gizonak lagun artean etortzen dira jolastera eta begiratzera, emakumeak aldiz janaria saltzera eta haurren zaintzera. Eraikuntzak diseinatu eta eskaintzak gauza- tzerakoan, desberdintasunak zein diren zehaz- ki igarri ondoren har daitezke neurri apropos- ak. Eta horrela, arlo guztietan”.

Gizonak, bistan denez, badute ere alda- kuntzetan parte hartzeko eginbeharra. “Hezi- keta askoz sakonagoa da gakoa, estereotipo- en gainditzeko. El Salvador-en, oraindik ere, aitatasuna erdeinuz tratatua da. Etxeko lane-

«Feminismoa zer zen jakin gabe hasi ginen gure eskubideen alde borrokan»

Morena Herrerak hamasei urte pasa zituen gerrillan, ardura postu desberdinetan. 1990ean FMLN utzi eta emakumeak molde autonomoan antolatzeko ahaleginetan hasi zen.

Nola sartu zinen milizietan? Zer egin zenuen han?

Ikasle mugimendutik egin nuen saltoa gerrillara. Garai hartan (1978an) herriaren egoera aldatzen saiatzeko alternatiba bakarra zen hura, edozein egitura publikotan egonik kartzela eta tortura pairatzen genituelako. San Salvador hirian eginkizunetan aritu eta gerrilla landatarrera pasa nintzen gero. Gerlan, emakumeak gure artean antolatzen hasi ginen gizonen heineko ardurak ukaiteko, feminismoa zer zen jakin gabe. 1989ko ofentsibaren ondorioak ikusirik, gerlatik atera behar zela ondorioztatu eta frontea utzi nuen Las Dignas kolektiboa sortzeko.

Zehazkiago, nola iragan zen FMLNn gizon eta emakumeen arteko eginkizunen banaketa?

El Salvador-en gerrilla baldintza onetan eroateko mendi gutxi zegoela erraten ziguten sarri; mendia herria zen beraz, hark zigun aterpe eta sostengu ematen. Eta mendiak generoa zeukan, laguntzaile horien gehiengo

emakumeak baitziren, amatasun soziala garatuz, guda-riak semetzat hartuz. Rol tradizionalak ez ziren beraz desagertu.

Gure zereginak, hein militarrean behintzat, ez ziren beti gizonen parekoak, nahiz eta gerlara joateko haurrak utzi behar izanak gurasotasunaren funtzioak sakatu zituen. Baina indar gehieneko armak beti gizonen esku geratzen ziren, emakume gehiago zeuden sendagile, irati-esatari edo sukaldaritza postuetan.

Gerrillatik alderdi politikora igarotzean, FMLNk zein heinean hartu zituen kontuan emakumeen eskubide eskakizunak?

Gerla parentesia izan zen, haustura. Bukatzean, emakume asko berriz beraiei bizilekura joan eta tamalez lehen-egoerara itzuli ziren. Protagonismotik bigarren planora pasa ziren, eta batzuetan etxean biolentzia pairatu zuten. FMLNk ez zuen birgizarteratze hori sostengatzeko erronka bere gain hartu. Feminismoarekin topo egin genuenok izan genuen gertatu zenaren beste irakurketa egiteko parada; marjinazioa eta diskriminazioa ez ziren gatazka-aren bide negoziatuarekin indargabetu, nahiz eta osasunean, hezkuntzan, ordezkatzean aitzinamenduak egin.

tan dabilen gizona emakumearen menpe dagoela edo homosexuala dela aipu da normalean. Funtzioa baikorki proiektatzeko, emakumeek hurbil ditugun gizonekin aldaketak negoziatu behar ditugu, horretara animatu behar gara ekitatera hurbiltzeko”.

Eta Herrerak bizipen hau hartzen du eruditzat aburuaren azpimarratzeko: “Lagun dudan zinegotzi batek bilkuretar joateko senarrari beti baimena eskatzen zion lehen. Kalapitak zituen maiz etxean, baina denborarekin egoera aldatzea lortu zuen. Handik hiru urtera zertan zegoen galdetu nion eta zera erantzun zidan, orain senarrak badakiela baimena beti eman

behar diola. Nola? Emakumeak, ukapen baten ondotik, ‘banoa eta ez naiz itzuliko’ erran ziolako. Orduan gizonak ulertu zuen zein garrantzitsua zen andrearentzat bilkura haietara joatea. Errespetua kendu gabe, pixkanaka, gizona halako gauzak ulertarazi behar zaizkie”. Halako joerek jendartearen honako ideia helarazi dutela uste du Herrerak: “Emakumeek nahi dugun eran bizitzeko eskubidea dugula gero eta onartuagoa da, gehienbat emakumeen artean, eta horregatik ez dugula diskriminatuak izaterik. Ideia honek ez dauka atzera bueltarik”. ■



www.arabakotxapelketa.org

Antolatzailea



Babesle Nagusiak






argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.

TTAKUN (H)ERRENKA

Beldurraren egiak

Jose Luis, *egia* gai zaila da, nik ez dakit dagoeneko norbaitek sinesten duen bere existentzian bakoitzaren sinesmen nagusiaren osagarritzat ez bada. Fanatismo atomizatuaren garaian, gero eta gehiago entzuten da *nire egia* espresioa, dagoeneko Egia bakar horretara iristeko asmorik gabe. Ikuspuntuaz hitz egin daiteke, eta aurreiritziz, datuek baino gehiago erakartzen gaituzten sinesmen horiek, biografia emozional gezurti baten arabera, gure patrimonio egonkorren bihurtzen diren beldurren arabera; umetako beldurrak.

Lagun batek deitu zigun bere maizterrak astea Miamin pasa behar zuela eta, negozioak zainduz, etxea eskaini ziolako, igeltseroak zetozkionez, eta batez ere, katua zaintzeko. Nire lagunak klase gatazkarik inon ikusten ez duenez, eskakizunak konfidantza esan nahi zuela erabaki zuen, nik aprobeitxategi paternalista baten manipulazioa baino sumatzen ez nuen lekuan. Abiatu ginen beraz Majadahondara, nire ezagunen bat igerileku begiratzailatzat baino sartu ez den eremura, izozteak zirela eta, gatzetaz eta lokatzez beterik agertzen zen gure hirugarren eskuko Ax-ean.

Ez zegokigun leku batean zehar genbiltzaren sentsazioa areagotu zitzaidan burdinazko atea giltzaz ireki genuenean; hemendik aurrera ibilaldia haur-mundu batean zehar izan zen. Igerilekua, “abantaila handiak ditu bizilagunen artean konpartitzeak, horrela gainera umeek beraien artean jolas dezakete”, dio gure lagun eszenatokiagatik liluratuak; konpartitzearen abantaila igerilekua indibidualki izatearen ondoan zen noski, ez igerileku munizipalarekiko, hori ez zen aukera bat ere. Behin etxebizitza barruan sabaitik behera erortzen zen hari batek hartu gintuen, gora begiratu eta Bob Esponja bat ikusteko, globo bat; sukaldean umearen egutegia, aulkia, platerak eta abar, jostailuren bat, gehiago egongelan,

DANI BLANCO



Nixene Apaolaza



Padrón



Sarasola

neskatxaren argazkiz gainezka zegoena, bere Facebookeko orrialdearen aurrerapentzat; ondorengoaren logela herriko festetako barrakak ez itxaron behar izatekoa zen, zer esanik ez lorategia.

Lagunak aurpegia ikusiko zidan, eta ahoa zabaldu aurretik “ari zara pobre erresuminduen onorioak ater-

ratzen?” bota zidan; “bai, oraintxe bertan Silvio Rodriguezen kanta bat bezain auresangarria naiz”. Ez zen egia, nigan arraroa bada ere, eta egoerak klase diskurtso bat baino gehiago osatzeko lain ematen bazidan ere, demagogia gogoa banuen Rajoyren neskatzaren etxean bertan, aberats erdipurdikoen alabarekin enpatizatuz ari nintzen, (igerilekua konpartitzearen abantailak guztiz aberatsa ez den batek bakarrik zerrenda ditzake). Oroitu nintzen halako giro pribatutik mundura jaitsi zen hogeita hamar bat urteko beste ezagun baten deiarekin, nola kontatu zigun trena erdibidean gelditu zitzaientean pasa zuen beldurra, “han geunden, ezerezean gelditurik; denak ziren etorkinak!; eskerrak beste neska bat ere bazegoen eta elkarrekin taxi bat hartu genuen”, gainerakoak han utzita. Gogoratu genuen baita ere gizarte segurantzarekin zuen zorra zela-eta, Madrilen husten hasi ziren eskola pribatuarekin; lortu dute kurtsoa han amaitzea; pobre bai, baina pobre artean ez, ezezagun beti basatiagoak, eskola publikoan apur bat hezten dituztenak.

Bazkaria amaitu eta alde egin genuen ahalik eta azkarren, igogailurako bidean topatu genituen bizilagun kartzelakideei gupidaz begiratzuz, beraiek guri bezala: Malasañara, zarata bila, ezberdintasun bila, mundu bila, egia bila, ez dakit gurea, edo besterenak ostu gabe utzi dituen apurrena, publizitate kanpainak noizean behin libre uzten duten zementuzko plazan baloia eta biografia konpartitzen duten umeena, beldurrak egozteko burdinazko aterik gabe. ■



«
Lagun batek deitu zigun bere
maizterrak astea Miamin pasa behar
zuela eta, negozioak zainduz, etxea
eskaini ziolako, igeltseroak zetozkionez,
eta batez ere, katua zaintzeko
»



Lehen **KONDENA** baizik ez zuten
eskatzen; gero **BARKAMENA**.
Orain **DESINKULAZIOA**, **DAMUA**
ETA **ARDURA** **PENALAK** **ASUMITZEKO**
BORONDATEA...

eta irribarretsu gero!

UFA!!!
Lehenko Terroristok
ez genuen hainbeste
azterketa pasatu
jaurlaritzara iristeko...



Koldo Aldalur

KAZETARIA

Iruñea Digitala 2013

Profesional mailako eskupilotan nagusi diren enpresek zor handia diote Nafarroari. Garai beltz haue-
tan Labritek eutsi die txapelketei.

Larunbatero ikusle ugari esertzen da pilotaren historiaz gainezka dagoen Labrit zaharreko harmailetan. Giro bikaina gehienez, zaletasuna sortzeko giro aproposa.

Orain, Nafarroako Gobernuaren parte den Kirol Institutuko zuzendariak, Miguel Pozuetak, eskaera egin dio ASPE eta ASE-GARCE biltzen dituen EPELi 2013ko buruz buruko pilota finala Iruñeko pilotaleku berrian joka dadin.

Okerrik ez dela, Erreinu Zaharreko hiri-buruko pilotaleku berriak udaberri inguruan zabalduko ditu ateak. Sadar inguruan eraiki dute eta pilota partidez gain beste hamaika ekitaldi hartzeko prestaturik izango da. Hiru mila lagunetik gora eserita eroso hartzeko aukera eskainiko du. Leku aproposa, beraz, horrelako finala jokatzeko, edukiera handi-
neko pilotalekua litzatekeelako eta historia-
ren pisua alde duelako.

1940an nolabait txapeldunen buruz buruko zerrenda osatzen hasi zenetik espainiar batek, Barberitok, Lapurdin sortutako batek, Xalاک, arabar batek, Ogetak, birritan, hiru bizkaitarrek bederatzi aldiz eta sei gipuzkoarrek hamahiru bider lortu dituzte txapelik preziatuenak. Gainontzeko berrogeita bat



DANI BLANCO

ediziotan txapela Nafarroara joan da. Joan, jakina, bertan ez delako horrelako finalik jokatu.

Beraz, EPELek final hori zor dio Nafarroako pilotazaleari. Hala ere, azkenean finala Iruñean jokatzeko bada egoera barre-
garria eta negargarria, biak batera, sor dai-
teke. Finala pilotaleku berrian. ETBko kamerak bertan gertatzen dena eskaintzeko prest eta Nafarroan bertan pilotazaleek finala LTD bidez (Lurreko Telebista Digitala) ikusi ezin, inork ulertzen ez dituen arrazoi politikoak direla medio. Beno, batzuek ulertzen dituzte eta horregatik gaude gauden egoeran. Turkian edo Errusian bai, Afrikako zoko ezutuenean edo Alaskako hotzetan bai, baina Nafarroan bertan ez. Eta horrek erakusten digu berriro ere politikarien eta herritarren artean dagoen basamortu antzua. Hamaika pilotazale nafarrek metaforikoki gustura jarriko lituzke hainbat politikari frontisean itsatsirik partida jokatzeko ari den bitartean. Ea ihes egindako pilotakadaren batek ideiak argitzen dizkien. Eta, bide batez, azpialdea belztu.

Amorratuak gara hanka-sartze historiko-
ak egiten, baina horrek ez du esan nahi derrigorrez beti horrela ibili behar dugunik.

Garai berriak askoz gehiago merezi du. ■



«
Okerrik ez dela,
Erreinu Zaharreko
hirituruko pilotaleku
berriak udaberri
inguruan zabalduko
ditu ateak
»

TXANDAN

Josu Amezaga



Ez naiz euskaltzainaz ari, Unibertsitatean izan nuen ikasle miresgarri bati buruz baizik. Ohiko moduan ikasle-
leci Orwellen 1984 eleberritik pasarte bat aukeratu eta irakurtzeko eskatu nie-
nean, Winston Smith torturatua denekoa aukeratu zuen berak. “Orwellek tortura ezagutu behar izan zuen” esan zigun aukeraketaren zergatiaz galdetuta, “kontaketa oso erreala baita”. Oraindik erantzunaren dimentsioa asmatu ezinik nengoela, “hortik pasatuta nago ni” gehitu zuen. Eta jarraian, gutxitan ikusi dudun duintasunez hasi zen Guardia Zibilaren esku

**Miren
Azkarate**

pasatutakoak talde osoari kontatzen, fik-
ziotik batere ez zuen bere 101. gelaren berri ematen. Ikasgela isil-isilik, hogeita bost urtean inoiz izan dudun eskolarik emankorrena ez nuen nik eman, berak baizik.

Duela bost urte Unibertsitatea utzi behar izan zuen, berriro atxilotu eta espetxeratu egin zutelako, zigorra betetzeko. Otsailaren hasieran atera da kalera, eta pasatutakoak pasatuta ere, Winston gaixoen traza betilunik ez diot ikusi argazkietan: irribarrea baizik.

Ongi etorria Miren, espetxeko horma-
ren alde honetara. ■



Fermin Erloiti

KAZETARIA

Valentziako hiritik dator notizia

Negu gorriko hotzen amaierak gazteen karrikaratzea ekarri du Espainiako Estatuko hainbat tokitan, PPren mozketen aurka egiteko. Valentziako hiritik datorren notiziaren arabera, hango polizia Pasaiaiko zezen hura bezain jenio bizikoa da, hamabost-hamasei urteko gaztetxoei oldartzean erakutsi duen bezala.

Ikasleak Gobernuak irakaskuntzan eginiko mozketen aurka karrikaratu ziren, kalefakziorik ere ez zutela salatuz. Eta poliziak, beti bezain eraginkor, arazoa berehala konpondu zuen. Nola? Gaztetxoak berotuz, egurtuz. Gurean beritik gutxi duen irudiak oihartzun handia lortu du komunikabide guztietan, eta mozketek eraginiko haserreari poliziaren gehiegikeriek sorturikoa erantsi zaio, protestak beste lurraldetara ere zabalduz.

Ikasleak liburuak eskuetan ikusi ditugu, "Hau da gure arma bakarra!" oihukatuz. Irudiak Gabriel Celaya hernaniarraren *La poesía es un arma cargada de futuro* (Poesia etorkizun handiko arma da) izenburuko poema gogorarazi digu.

Paco Ibañezen ahotsean ikasi genuen olerkiaren arabera, poesia behar-beharrezkoa da, eguneroko ogia eta minu-



JOSU SANTESTEBAN



Ikasleak Gobernuak

irakaskuntzan eginiko

mozketen aurka karrikaratu

ziren, kalefakziorik ere ez

zutela salatuz. Eta poliziak,

beti bezain eraginkor,

arazoa berehala konpondu

zuen. Nola? Gaztetxoak

berotuz, egurtuz



tuan hamahiru aldiz arnasten dugun airea bezain beharrezkoa. Denboraren joan-etorriak erakutsia badakigu poesiaren handitasunak ez duela zer ikusirik mundua aldatzeko eraginarekin. Dena den, hunkigarria da poema, Valentziako gaztetxoan ametsa bezain bihotz-altxagarria, Manuel Vicentek gogoratu berri digunez haserrea nerabezaroaren adin nahasian izaten baita garbiena, eskuzabalena, interesik gabekoa.

Argi dago poesiarako garai aproposik sekula ezagutu gabeko munduak lekutan utzi duela lirikotasuna: mozketak eta egurra, horixe duzue gobernuaren eskaintza bikoitza. Hau dena *atzerald* di aurreko denboran gertatu bada, iragarri diguten *atzerald* leunean gerta daitekeenaz pentsatzea kezkarria da, eta are kezkarriagoa *leuna* zena noizbait *latz* bihurtzen bada...

Badakigu Celayaren garaian bezain zaila dela poesiak mundua aldatzea. Liburua ere, jakina, ez da poliziaren edo beste edozeinen basakeriari aurre egiteko tresna eraginkorrena. Baina garai latzotan ere, garai latzotan batez ere, ezinbestekoak ditugu poesia, liburuak eta gaztetxoan ametsak. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



usurbildarrek iragarri zutenean, bertan gobernatzen ez zutenek kaosa ekarriko zuela, karrikak arratoiz beteko zuela, hondakinak biltzeko sistema

horrek herria zorrez hondoratuko zuela, izan ziren isildu gabe aireratutako perletako batzuk, horrela jardun zuten lehen hilabeteak bereziki. Gero Hernani etorri zen. Hemen ere berdintsu, garai horretan oraindik Hamaikabat-ekoak bazirela uste zutenean, horiei gaineratu zioten hernaniar andana tranpan harapatuak zituztela bere hondakinak Astigarragan uzten zituztela-eta. Egunerokotasunen normaltasu-

Atez
atekoa

nak kalmatu zituen nonbait. Oiartzunen, auzoan urak aski bare jada aiseago ekin zioten proiektuaren gauzatzeari. Bitarte horretan, ez dira gutxi izan Zero Zabor bezalakoen informatze ahaleginak bidea egiten lagundu dutenak. Baina bereziki herri horien biztanleak dira sistemaren egokitasunaz pozik daudenak, egindako inkesta zehatzek adierazten duten bezala. Orain, Gipuzkoari dagokio eredugarria izaten, bestelako antolaketa posible dela, errauskailurik gabeko munduan bizi gintzekela garbiki frogatzea. Lapurdira ere iritsi zaigu oihartzuna. ■



BERTSO BERRIAK

Julio Soto

Galdetzeari jarriak



XDZ

I

Eskubideak berdinak izan behar badute jaiotzez, elkar lagundu behar badugu borondatetsu, bihotzez. Parean bizi behar badugu nagusitzeko asmoz ez; gauzak banatu behar badira nire, zure, haren sosez. Zergatik hiltzen dira urtero hamar milioi ume gosez?

III

Langabezia gora badoa honi zizta, hari zizta. Soldatak behera baldin badoaz lehen gutxi, orain pixka. Uzten badira osasungintza kultura, hezkuntza erdizka; dagoen zorrak beldurra ere ematen badu aldizka. Zergatik ez da zalantzan jartzen sistema kapitalista?

V

Ikasi duzu nola moldatu ordenagailu parean. Zer den Facebook-a, zer den iPad-a hacker izaten sarean. Baina apustu egingo nuke duzun abilidadean; zaudela ardi batek zenbat hortz dituen jakin gabe. Eta bai, noski! Ahoan dauzka! Baina goian ala behean?

II

Zu ez bazaitut, ezin ninteke zorionera iritsi. Ni ez banauzu, ezin dituzu gauean begiak itxi. Nik izugarri maite zaitut zu zu lora, zu harribitxi; zuk izugarri maite nauzu ni ni gehien, ni lehenbizi. Eta orduan zergatik ezin gara elkarrekin bizi?

IV

Hitzak badira jakinduria gabe gutxi ginateke. Beraz hitz asko jakinez gero osatuago geundeke. Hitzak badira kultura bizi lurralde baten aterpe; kultura bada aberastasun urre-gorri, urre-bete. Hizkuntza bat hil nahi izatea nola ulertu daiteke?

VI

Inozentzian bizi direnak nahiz kontentu diruditen. Bat herdoiltzen da lepo gainari ez badio eragiten. Asko dakiten horiek ere nola dena ez dakiten; kezkarik izan ezean nola zaila den gauzak jakiten. Erantzunik ez aurkitu arren segi galderak egiten.



DOINUA: Lurraren pean sar nindaiteke



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

«Ama, artista izan nahi dut!»

Ez da gaur goizeko kontua. Ez da krisia deituriko arpilatze honen ondorio zuzena ere. Aurretiazko errealitatea da euskal sortzaileak sortze lanetik bizimodua ateratzeko ia aukerarik ez duela, bere jarduna bestelako lanekin osatzen ez badu. Egoera horrek sortzen dituen buruhaustea ezagutu nahian, hiru sortzaile gazterekin hitz egin dugu.

IRATXE ESNAOLA

EUSKAL HERRIAN kulturak ez du instituzioen aldetik behar beste sustapen jaso gaur arte. Egoera hori okerragotzeko, Eusko Jaurlaritzak 2012rako %12 inguru jaitzi du kulturaren aurrekontua. Erakunde publikoek aplikatutako murrizketak hemen dira: Nafarroako Antzerki Eskola hiltzorian, Gasteizko Montehermoso kulturuneko aurrekontua aizkoraz moztua, bi kasu ezagun aipatzearren, eta elkarte-ekimen txikiei eragin galerak ahaztu gabe. Herri mugimendutik abiatutako zenbait sortzailek gure errealitate kulturalari erantzun nahian, *Euskal*

Sortzaileak Gara izeneko dokumentua plazaratu zuten 2011ko maiatzean Durangoko Platerue-na Kafe Antzokiaren abaroen. Euskal kulturak babesa eman dion erakunderik ez duela ezagutu salatzen zuten eta *Kulturaren Batzorde Nazionalak* eratzeko proposamena zekarten, auzolanean erabakitako kultur politika berrien bila.

Hain zuzen, sortzaileen testigantzak ezagutuz egiten zaio argi errealitate horri. Adibide bat *A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina* (Traficantes de Sueños, 2004) liburuan daukagu. Irudia lantzen duen sortzaile batek

DANI BLANCO



AINARA AZPIAZUK UTZIA



LANDER ARBELAITZ

Uxue Alberdi (ezkerrean), Ainara Azpiazu "Axi" (eskuinean goian) eta Willis Drummond taldeko Jurgi Ekiza (argazkian lehena da ezkerretik hasita). Hiru sortzaileek beraien bizi-baldintzez eta kulturak oro har bizi duen egoeraz hitz egin digute.

sufritu prekarietatea, azpiratzea eta zentsura aipatzen ditu *Ama, artista izan nahi dut!* izenburu daraman lanean. Guk hurbilagoko sortzaileen iritzia ezagutu nahi izan dugu eta Euskal Herriko hiru lagunekin mintzatu gara horretarako. Ainara Azpiazu “Axpi” (Hernani, 1980) ilustratzailea da. Jurgi Ekiza (Baiona, 1980) Willis Drummond musika taldeko kidea. Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) idazlea eta bertsolaria. Hirurei beren sortze lanaz, lan baldintzez eta sorkuntzaren funtzioaz galdetu diegu.

Zenbat lan egiten duzu erabakitako sorkuntza lanean? Zer lan dira bizirauteko burutu beharrekoak?

Uxue Alberdi: Bi sorkuntza lan konbinatzen saiatzen naiz: idaztea eta bertsogintza eta bakoitzari eskaintzen diodan denbora aldarokorra da; batari gehiago eskaintzen diodanetan besteari gutxiago, eta alderantziz. Idazteaz eta bertso-saioak egiteaz gain, kazetari lanak egiten ditut. Aldizka, itzulpenak ere bai, hitzaldiak hanhemenka, irakurle-taldeak gidatu, inoiz idazketatailerren bat eman, enkarguak... Beharren arabera lan egiten saiatzen naiz, ahalik eta gustuko gauza gehien egiten eta ahalik eta konpromisozko gutxien. Orain amagintzari eskaintzen diot denbora dezente, eta gainerakoa sorkuntzari eskaintzen saiatzen naiz.

Ainara Azpiazu: Erabakitako sorkuntza lanaren nolakoak definitzen du erantzuna. Baina zer da erabakitakoa? Nik ilustrazioak, komikiak edo muralak egitea erabakitzen dut. Batzuetan, askatasun handia ematen didate bezeroek, eta beste batzuetan, txikiagoa. Askatasun maila eskariaren arabera aldatzen da. Gaia, normalean, emana datorkit. Adibidez, haur baten logelarako mural bat margotu. Edo Martxoaren 8rako kartel bat egin. Hala ere, niretzat beharrezkoa da %100 nireak diren lanak egitea, sormena ito ez dadin. Horregatik beti dut nire-nirea sentitzen dudana zerbait labea.

Jurgi Ekiza: Willis Drummond-eko taldekieon elkarlana eta bakoitzaren ekarpena, biak dira garrantzitsu. Kolektiboaren eta norbana-koaren arteko oreka da gure berezitasuna. Niretzat musika ez da lana, ezta lanbide ere. Baina horrek kontraesanak dakartza. Alde batetik, kultura ezin da neurritu eta ezin zaio balore ekonomikorik eman. Baina, aldi berean, gure bizitzetako aktibitate nagusia da. Momentuz ez gara musikaz bakarrik bizi. Iraganeko lanen paroa jasotzen duenik bada, edo lan ttipiak hartzen dituenik, noizbehinka. Gero eta gehiago lortzen dugu gure kontzertuez bizitzea baina, esan bezala, musika ez da lana. Ezin da zenbatu zenbat ordu pasatzen diren sorkuntzan. Ezin da horren bidez kal-

“Ezkerreko politika kultural bat zer den pentsatu behar genuke lehenbizi, eta martxan jartzera ausartu”

UXUE ALBERDI,
IDAZLEA ETA BERTSOLARIA

kulatu zenbat diru irabazi behar den. Ez. Musika da gure bizitza.

Kulturak ez du instituzioen aldetik behar beste laguntza jasotzen. Zer aterabide ikusten diozu egoera honi?

U. Alberdi: Badirudi beharizan kulturalak beharizan burgesak direla, baina Amurizak esan bezala “pertsona ez da ogiz bakarrik bizi”. Ogi erdia eta liburu bat eskatzen zituen Lorcak herriarentzat. Frantziako estatuan sortzaileek badute beren soldata, baina Espainiakoan hori eskatzeak erokeria dirudi. Nik kulturari duen garrantzia ematen dion herri batean bizi nahi nuke. Gurean ere, beti izan dira kontu garrantzitsuagoak, hil ala bizikoak, eta gainerako gaiei duten pisua kendu gabe, bada garaia gure herria kulturalki eraikitzen hasteko. Ezkerreko politika kul-

tural bat zer den pentsatu behar genuke lehenbizi, eta martxan jartzera ausartu.

A. Azpiazu: Estimazioan ikusten dut gakoa nik. Lan grafikoaren garrantzia eta balorea azpimarratzea inportantea da. Kontuan hartu irudia oso erakargarria eta baliotsua dela edozein gizakiren garapenerako. Adierazpen estetiko oso baliotsua da norberarentzat zein ikusten duenarentzat. Gainera, herri bezala dugun ikuspegiaren oinarri-oinarrian dago kultura. Mundua begiratzeko dugun modu kolektiboa da, janzten ditugun betaurrekoak. Horretan dihardugunoi errespetu eta babes ematearen garrantziaz ohartarazi behar ditugu instituzioak, batetik. Eta bestetik, frogatu kultura ekonomikoki oso errentagarria dela. Produktu bezala errentagarria baita.

J. Ekiza: Kultura oso inportantea da gizartearentzat, eta beraz, gauza biziki ona da diru publikoa bertan erabiltzea. Arazoa diruaren erabileran datza. Batzuetan, iruditzen zait laguntzak lortzen dituztenak ez direla obra onenak egiten dituztenak, baizik diru laguntzak lortzeko eskaera-orriak behar bezala betetzen dituztenak. Instituzio publikoek martxan jarri behar lituzkete azpiegiturak. Adibidez, kontzertu gelak edo makro-festibalak subentzionatu baino, 200-300 lagunentzako kontzertu gelak sortu, behar den guztiarekin, antolatzaileei eskaintzeko. Hartara, talde guztiei aukera berdina ematen zaizkie, eta kulturaren beste ikuspuntu bat garatzen da, ez kontsumista, baizik aktiboa.

Okerragotua ikusi duzue zuen egoera krisia izendatu zenetik?

U. Alberdi: Oro har, kultura bigarren mailako beharizantzat hartzen da. Gurean, gainera,

bigarren mailako beharrezana eta bigarren mailako hizkuntza elkartzen dira. Udaletan, ekin-tza kultural asko kultura batzordeetatik bideratu beharrean euskaratik bideratzen dira eta, beraz, bi aldiz jasaten du krisia euskarazko kultur sorkuntzak. Euskal sortzaileak ohituta daude baldintza pobreetan sortzen. Kasu askotan lana doan edo ia doan egiten dute. Antolatzailerak ere errazera jotzen du: ekintza kulturaletarako dirua aurrezten edo lortzen ahalagin handiagoa egin beharrean, sortzaileei merkeago lan egin dezaten eskatzen diete.

A. Azpiazu: Azken urteetan barne lanketa handia egin dut eta horri esker momentu onean nago orain. Nire lana geroz eta ezagunagoa da, nahiz eta oraindik oso maila txikian izan. Krisia dela eta nabaritzen da inguruan tentsio puntu bat, komentario negatiboak eta etsipenerako joera. Baina aurrera begiratzen jakin behar da ingurukoari garrantzia handirik eman gabe, gehiegi kutsatu gabe.

J. Ekiza: Gu ez gara asko ibiltzen zirkuitu instituzionalean, beraz, kulturaren aurrekontua jaistea ez dugu sentitu, oraindik. Baina seguru aski gehiago sentituko dugu heldu den udan. Institutio handietan murrizketak badira, herri eta hirietan kulturari ipinitako dirua ere murriztu egingen da. Autofinantziazioan ibiltzen gare-nok ere ondorioak sentitzen ditugu, beraz. Gizarteak, orokorrean, diru gutxiago gastatzen du kulturari, eta aitortzea pena bada ere, ulergarri zait.

Zer garrantzia du sorkuntzak jendartean?

U. Alberdi: Uste dut pertsonon beharrak direla fikzioa, abstrakzioa, sormena, estetika eta arteak eskaintzen duen oro. Beharrezko zaizkigu gure autoirudia sortzeko, pertsona eta jendarte bezala. Sinbolo kolektiboak sortzeko balio du. Komunikatzeko kode konpartituak

sortzeko. Artea errepikapen modu bat da, gure izate iragankorreko sentsazioak, gertakariak finkatzeko modua. "Hemendik pasatu ginen" esateko modua. Beharrezkoa da gogoratzeko eta etorkizuna irudikatzeko.

A. Azpiazu: Garrantzi handia du niretzat eta ingurukoentzat. Baina, zeri deritzogu artea. Gauzak egiteko modua da niretzat, barrutik kanporakoa, zerbait oso ondo egiteko grina. Norberaren muintetik datorren gogoari jarraitzen dion ekiteko modua. Ikusi ditut artistak nekazaritzan, sukaldaritzan, pinturan, bertsogintzan. Ez da arloari dagokion zerbait, moduari dago-kio. Bizitzarekin berarekin dator. Aldaketa da, integrazioa, fusioa. Tradizionalki artetzat jo izan diren esparruek (pintura, eskultura, dantza...) etengabe lantzen dituzte ezaugarriok, eta gizarte bat benetan garatzeko, bere esentzia adierazi eta fintzen joateko, ezinbesteko papera betetzen dute.

Transformazioa da. Hobetzea. Soluzioak eskaintzen dizkigu. Arnasa bezain premiazkoa.

J. Ekiza: Artea bitan banatuko nuke. Kontsumitzen den artea, batetik, nahiz ez niokeen zentzu negatibo erabatekorik atxiki nahi. Ongi ikusten dut jendea arte ekitaldietara joatea. Mundua ikusteko ikuspegi zabalagoa dakar eta kuriositatea handitzen du. Bestetik, maila pertsonalean, arteak beste zerbait dakar. Horretan, biziki garrantzitsua da arte aktiboa bultzatzea: klaseak, tailerrak, aktibitate parte-hartzaileak. Musikaz, pinturaz, poesiaz... Bakoitzak adierazten ahal du eguneroko bizitzan adieraztea lortzen ez duena. Eta horrek frustrazio asko ken dezake eta plazer pertsonal handia eragin. Azkenik, kale kultura sustatu behar dela uste dut. Jendeari erraz parte hartzeko aukera ematen baitio, eta batez ere, jende orori zuzentzean dimentsio soziala ematen dio arteari. ■





urrez urre

artistak:
Maider Zunzunegi Agara Aguirre Idoia Elorriaga
Arantxa Munilla Maialen Zabalza Oihana Ugarte
Naiara Deleado Nisa Goiburu Cristina Zaldibia
Nerea Ugarte Txitxi Julia Torrado Eider Elgueta
Itziar Basterrika Amaia Gaztañaga Helena
Cancelo María Cueto Cristina Gómez Paula
Fleming Idoia Sánchez Ester Poveda Vanesa
Alzate Susana Segurole AnaBelen Jarrin Dolo
Navas Tytti Thusberg Miren González Miren Atxaga

egitaraua:

Martxoak 5, ostakina 10:30 PnkSaris, filma. (Lelord)

Martxoak 6, ostakina 18:30 Arte Feminista Kalea Okupatzen (Zerkausia)

Martxoak 7, ostakina 19:00 AurrezUrre Inaugurazioa (Aranburu Jauregia) (Berdintasun Sarien Banaketa)

Martxoak 8, ostakina 19:00 Sin Balas, antzezleak (Lelord)

Martxoak 10, ostakina 10:30-14:30/15:30-18:30 Ikus Entzunezko Tailer feminista

Martxoak 10-11, ostakina 19:00-21:00 Emakumeen eguneko ospakizuna Alurtxiki auzo elkartearen

Martxoak 14-15, ostakina 19:00-21:00 Emakumeen eguneko ospakizuna Dolo Navas y Tytti Thusberg

Martxoak 22-24, ostakina 10:30-14:30/15:30-18:30 Ikus Entzunezko Tailer feminista

Martxoak 25-26, ostakina 10:30-14:30/15:30-18:30 Ikus Entzunezko Tailer feminista

Martxoak 31, ostakina 19:00-21:00 Autodefensa Feminista (Bilgune Feminista)

Apirilak 12-14, ostakina 19:00-21:00 Teatro de la Oprimida

Apirilak 15, ostakina 19:00-21:00 Amalera festa







Musika

Norte Apache, azalgorrien irrintzia

Gurean, *quilombo* hitza entzutean, guztiek pentsatuko dute gutxi-asko iskanbilaz ari garela. Baina *quilombo*ak ihes egindako esklabo beltzek oihanean sortutako errepublika libreak ditugu. Ez da kasualitatea, beraz, Norte Apache taldearen azkeneko diskoak izen bera eroatea, diskoa bera askatasun aldarrikapenez eraikitako errepublika delako.

ALVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN

GAUZATZEN DOA duela urte gutxi ezinezkoa zirudiena: euskara eta rapa uztartzea. Han-
hemena, asko ziren errimak egiten zituzte-
nak. “Nire kabuz hasi nintzen euskaraz
rapeatzen”, dio Norte Apacheko abeslariak,
Raycok. Horretan zebilela bera bezalakoak
ezagutzeko parada izan zuen. “Gaizka eta
biok rapeatzen arituak ginen, elkarren berri-
rik izan gabe. Halako batean, behin elkar eza-
gututa, indarrak batu genituen eta Aritz
Sound Systemekin kontzertuak ematen hasi
ginen; tartean, Endika (121 Krew) be baze-
goen”. 2007an izan zen hura: haiek ziren
egun Norte Apache
izenpean ezaguna dugun
proiektuaren hastape-
nak. Denbora tarte txi-
kian aldaketak izan
zituen taldeak: “Elkarre-
kin hainbat urte eman
eta gero, Gaizkak alde
egin zuen eta Aitor eto-
rri zen, DJ moduan,
baita Ibon ere MC lane-
tan. Harrez geroztik,
orekari eutsi diogu kon-
tzentuetan-eta”. Taldeki-
de berriak ailegatuta,
urte eta erdian 50 kon-
tzentu baino gehiago
ematea lortu zuten eta
bien bitartean, zuzene-
koa borobiltzen zihoa-
zen. *Hesiaren bestaldean*
(2009) taldearen aurre-
neko diskoa dugu. Urte-
bete geroago, Parisen
zuzenean grabatutako
beste bat kaleratu zuten,

Mamarigako Kultur Etxearen 20. urteurrena
ospatzeko egina.

Txoko kuttuna dute Kultur Etxea eta ber-
tan izan dugu solasaldia. “Gaztetxeetan
hasiak gara, horiek dira ezagutzen ditugun
tokiak, egoten garen tokiak”, dio Aitorrek.
“Ez dakit rapa egiteko zirkuiturik ote dagoen,
baina guk horrelako lekuetan egiten ditugu
agerraldi gehienak, gazte asanbladen ospaki-
zuetan, esaterako. Agian, antzoki gehiago
bisitatu beharko genuke”. Datozen hilabete-
tara begira, hainbat jaialdi dituzte, Euskal
Herri osoan sakabanatuta: Arrasate, Altsasu,
Miarritze...

Quilombo diskoaren azala. Estudioko bigarren lana dute
Norte Apachekoek.



Iaz, oso kritika onak
jaso dituen disko berria
erditu zuten: *Quilombo*
(Musikherria). Ibonek
azaldu du beren lan egi-
teko modua: “Ez gara
ohiko taldea eta azken
disco hau be horrelakoa
da. Produktore gutxi
dago gurean, daudenek
lan asko dutela eta
baseekin nahiko arazo
izan genuen. Baina Iker
Eskurzak (E-you estu-
dioak) base propioak
egin dizkigu. Lan honen
mamia eta freskotasuna
Ikerrek jarri ditu. Bestal-
de, Raycok idazten ditu
hitzak eta Aitorrek scat-
chak egiten ditu”. Disco
batean lehenbizi baseak
sortzea izaten da norma-
lena, Raycok azaldu due-
nez: “Baseak eginda pro-

duktorearekin hitz egiten da bere ideiak era-kusteko; berarekin ere lantzen da egitura: estribilloa, zenbateko sarrerak, zenbateko rap zatiak eta, aurrerago, idazteari ekiten zaio”. Dena den, *Quilombo*n ez dute mekanika hori jarraitu beti. “Alderantziz egin dugu zenbait baserekin. Bagenuen estruktura xume bat eginda eta Ikerrek gure hitzen eta egituren arabera egin ditu baseak”.

Bilboko Ezkerraldea denbora askoan izan zen punkaren euskal gotorlekuetako bat. Han sortu dira, besteak beste, Eskorbuto, Distorsion, Zarama edota Subversion X. Egun, badirudi egiak kantatzerakoan, hitz politikoak eta aldarrikapenak kaleratzerakoan rapak berea egin duela punkien behar hori: “Gaizka, rap mundutik kanpo bada ere, Santurtzikoa da, Aitor bezala. Ibon Sestao-koa eta Endikaren 121 Krew barakaldarrak. Neu naiz bilbotar bakarra”, dio Raycok;

**“Gure herria, gure kultura indioak
bagina lez ikusten ditugu;
bakeroen kontra eutsi egiten
diogu gureari”**

**RAYCO,
NORTE APACHEKO ABESLARIA**

“bitxia da, bestalde, hau dena euskaraz eta Ezkerraldean egitea, batere euskalduna izateko osperik ez duen zonalde batean. Behintzat, hori dugu askoren iritzia”. Lehen bezala, kantetan gazteen arazoak eta gaztetxeak, errepresioa eta inposatutako azpiegitura erraldoiak dituzte hizpide, baita herri indigenak ere. Taldearen izenetik hasita, etengabe-koak dira indigenen gainean egiten dituzten aipamenak. Unibertso indigena propioa sortu dute, antza. *Quilombo*a, *ghetto*ak, Ezkerraldea. “Gure herria, gure kultura indioak bagina lez ikusten ditugu; bakeroen kontra eutsi egiten diogu gureari, gure izaerari. Geu ere indigenak gara”, adierazi du Raycok. Maputxeak. Nikaragua sandinista. Nire aitararen etxea defendituko dut. Bukowski eta Silvio Rodríguez; Hertzainak eta Kortatu; lepoan hartu ta segi aurrera. Askotarikoak Ezkerraldeko apatxeen bidaideak; Norte Apacheko biztanleak: “Kantetan gogoko ditugun taldeen hainbat bertso eta ideia erabiltzen ditugu, ‘ez dira betiko garai onenak’, kasu. Egiten diegun omenalditxoak izateaz gain, rapa jendearengana eramateko ere balio du. Badira jende askorentzako erreferentziak eta rapak belarrira jo dezan ere balio du”, dio Ibonek. Gabriel Aresti ere tarteaz dugu: “Jakin-mina sortzen didaten kontuak gogo-



Raycok, Ibonek eta Aitorrek osatzen dute Norte Apache taldea.

ko ditut; Arestirena, esaterako. Gaztetan eza-gutu eta hunkitu ninduen poema da, bat nator esaten duenarekin”, gehitu du.

Diskoak ere zenbait bisitari indigena izan ditu. 121 Krewko Endikak, Miren Amurizak, Zea Mayseko Aiora Renteriak eta Iñaki Imaz *Pitk*, Iker Fernandezek eta Iker Eskurzak hartu dute parte. Kontzertuak ez ezik, beste etorkizuneko planik ere badutela argi dago: jendea rapera hurbilarazi, rapa egitera animatu, euskaraz rapeatzen dutenen arteko elkartasuna bultzatu, beren lana sendotu. “Pixkanaka, kontzertuetarako seriotasuna eskatzen dugu; eskatu baita eskaini ere. Serio har gaitzatela nahi dugu; eta hartzen gaituzte serio, antza. Eskertzekoa da oso. Hau gure lana da, gure ardura gero eta handiagoa da, ez da hobby bat”, dio Raycok. Barreia dadila Ezkerraldeko Apatxeen irrintzia eta gero eta handiagoa egin dadila euskal *quilombo*a. ■



Liburuak

KRITIKA

Haur-jale onarena

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle

1970EAN ARGITARATUTAKO liburu hau jarri du gure eskuetan iparraldeko IKAS pedagogi zerbitzuak. Tomi Ungerer idazle eta ilustratzaile ezaguna da haur literaturan, nazioartean izen handia duen egile honek euskaraz ere baditu zenbait lan, *Bidelapurak* ezaguna tartean. Oraingo lan hau, hura baino zaharragoa izanik, iazko urte amaieran iritsi zaigu Itxaro Bordak euskaratuta.

Argumentua oso sinplea da eta *Bidelapurak* haren antza ere sumatuko du batek baino gehiagok. Istorioaren bi protagonista nagusiak haur-jale bat eta Zeraldaren izeneko neskatxa ditugu. Eta Xerezadek zenbait mende lehenago egin bezala, beste neskatxa honek salbatuko ditu herriko gainerako haurrak.

Haur-jalea herrira jaisten den bakoitzean haurren bat hartu eta etxera eramaten du jateko. Herrian, baina, haur guztiak ezkutuan bizi dira, kalera irten ezinik haur-jalearen beldur. Baina herritik kanpo, baserri batean, bada neskatxa bat haur-jalearen berri ez duena, Zeraldaren. Aitarekin bizi da eta txikitatik gustatu izan zaio sukaldean aritzea.

Egun batean, aita gaixo



Zeraldaren erraldoia.

Testua eta irudiak:

Tomi Ungerer.

Ikas.

31 orrialde.

10 euro.

dagoelarik, Zeraldaren azokara abiatuko da gurdia saltzeko elikagaiez beterik. Bidean, baina, haur-jalea izango du zain, harrapatu eta jateko prest. Haur-jalearen eta neskatxaren arteko topaketa, aldiz, ez da aurreikus zitekeen bezalakoa, patuak edo zortekak edo auskalo zerk oso egoera aldrebasean eta berezian jarriko ditu protagonista biak, eta handik aurrera beraien bizitza ez ezik herriko haur guztiena ere aldatuko da.

Amaiera zorionsua duen liburua dugu; adiskidetasunari eta maitasunari buruzko lana; eta albumetan ohikoa den bezala, irudiaren eta testuaren arteko irakurketa aberatsa eskaintzen duen obra. Alde horretatik oso egokia izan daiteke talde txiki bati, edo haur bati kontatzeko irudiak ikusten dituen bitartean (eta gero berak nahi beste aldiz “berrirakur” dezan); aproposa irudietan ageri diren milaka detaile, kontutxo, aurpegiera... interpretatzeko eta komentatzeko. Izan ere, liburuko protagonista gaiztoak, haur-jaleak, hasieran beldurra ematen badu ere, ez da horrela gertatzen istorioaren argumentu guztia ezagutu ondoren. Alde horretatik irakurketa ugari eginez disfrutatzen duen liburua dugu *Zeraldaren erraldoia* hau. Zailtasun txiki bat du, ordea, darabilen lexikoan, zenbait hitz (“burtzoroak”, “fartzak”, “aztal”, esaterako) nahi-ko ezezagunak baitzaizkigu hegoaldekoiei. Baina horrek inondik ere ez du eragozten liburuaren irakurketa eta Zeraldaren eta erraldoiaren istorioarekin disfrutatzea.



Bermeo

Liburu azoka martxoaren 8tik 18ra, Lamera plazan


EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Patta ta Sendaezinak.
Patta ta Sendaezinak.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 46'59".
10 euro.

Botila onean hamarkadatan gordetako rocka

JOTAKIE taldearen sorreran aritutako Jesus Sudupe *Pattak* eta Luciano *Luka* Martinek Urolako musikari gazteagoen laguntzarekin betiko rockaren gaitza non-nahi zabaltzeko ahaleginetan dihardute. Horretarako erabili dituzte, pop-rocka, power-popa, tronparen moldaketak eta kontrastea lantzen duten bi ahots, bata ederra eta bestea, *Pattarena*, egiazkoa eta oso hurbila. Nik hurbil sumatzen ditut Itoiz, Jotakie –jakina–, Errobi, Egan eta rock amerikarretik; eta

are hurbilago entzulearengandik *Pattaren* testigantzak entzunda. Badu galtzaille jarreratik, baina gehiago egiazkotik, egunerokotasunetik; eta moldaketek Ruper Ordorikaren diskoak gogorarazi dizkirate. Bere jarrera xumearekin –baina emaitza dotorearekin– lortu du iraganeko euskal rockak zuen soinua berreskuratzea. Sendaezinak hala bizi behar!

www.hotsak.com

Jesus Sudupe *Patta* - *Patta ta Sendaezinak*

«Ez naiz abeslari ona, ahotsa ere kaskarra dut, baina sinisten dut transmisioan»

“Inora eramango nauen busa”... musika da? Zer eman dizu?

Musika, rocka, zure barrura iritsi eta hor bizi diren emozioak, sentimenduak, ikuspuntuak eta iritzi desberdinak adierazteko bidea da. Eta nahi nuke musikaren busean joanez bidaia bera topera bizi.

Zaila da zurearen moduko betiko rocka aurkitzea, lehengo soinua duena: Itoizen estiloko melodiak, hitz oso biluziak, bi ahotsen arteko jokoak, baladak...

Diskoko kanten oinarria 70eko eta 80ko hamarkadetan egiten zen musikan dute. Melodiak nagusi dira: pop ukitua, rhythm&blues, amerikana pixka bat eta brit-popa.

“Zer gehixeago izan behar dut gutxiago nahi badut izan”. Gutxiago gehiago da?

Bai noski. Sinplea eta hobe, sendagoa! Baina esentziara iristeko, aurretik gauza asko egin behar dira.



Jesus Sudupe *Patta* argazkian.

Sendaezin gazteagoei musikaren gaitza kutsatu diezu? Nolakoa da beste belaunaldi batzuekin batera aritzea?

Nirekin elkartu aurretik kutsaturik zeuden. Gazte hauekin lan egitea oso aberasgarria da.

Tronpak oso efektu berezia eta aproposa gehitzen die rock kantei. Oso argi zenuen sartu nahi zenuela?

Lehenengo piano jotzailea aurkitu nuen eta geroxeago tronpa. Biek heziketa klasikoa dute eta hori beti da abe-

ratsa, abestiek bestelako kolorea hartzen dutelako. Tronpak goxotasunaren dohaina du, beti zaio lagungarri melodiari.

Ahaztu nazazu behingoz. Bada Jotakieren garaitik faltan botatzen duzunik?

Jotakieren garaitik odol gaztearen falta botatzen dut, alegia 20 urte edukitzea.

Oso sinesgarri abesten duzu, oso hurbileko... Baduzu sekreturik?

Beno, ez naiz abeslari ona, ahotsa ere kaskarra dut, baina sinisten dut transmisioan eta abesten duzuna sentitzean.

Nik lo egin nahi dut. Borrokatzeaz nekatuta?

Lo egin nahi dut, bai, batzuetan nekatua sentitzen naiz baina oraindik borrokak jarraitu behar du. Borroka bera da bidaia eta momentu politak gure garaipen tikiak. ■



Ezpalak

JON TORNER

Euskarazko film laburren bira 30 herritara helduko da

ABIAN DA Topaguneak antolatutako Laburbira, euskarazko film laburren zirkuitua. Apirilaren 3ra bitartean, 30 herritan proiektatuko dituzte aurtengo edizioa osatuko duten zortzi filmak.

- 1961eko *Aberria* dokumentala (Gotzon Elortza)
 - Galegoz egindako *Instalacion* (Xoxe Diaz). Edizio honetatik aurrera, Laburbirak urtero eskainiko du egoera gutxituan dagoen hizkuntzaren batean sortutako lan bat, euskaraz azpidatzia.
 - *Izena duena* 3D animaziozko filma (Joseba Uberuaga)
 - *Obe azpiko zera* (Paul Urkijo eta David Zabala)
 - *Hemen nago* (Maialen Sarasua)
 - *Urrezko eraztuna* (Jon Garaño)
 - *Zeinek gehiago irau*n (Gregorio Muro)
 - Revolta Permanent taldearen *Kantuka* bideoklipa.
- Egitasmoari buruzko informazio gehiago Topagunearen webgunean: <http://topagunea.org/laburbira>.

Dejabu

antzerki konpainiaren *Gure bide galduak* obrak jasoko du Donostia antzerki saria, martxoaren 27an Victoria Eugenia antzokian egingo den ekitaldian. Iaz



DANI BLANCO

Donostian programatu ziren helduentzako euskarazko bederatzi antzezlanen artean hura aukeratu du epaimahaiak. Dejabu 10.000 euro jasoko ditu. Parte bat –2.000 euro– Donostia euskarazko antzerki obra berri bat estreinatzen duenean jasoko du. 2015eko abenduaren 31ra arteko epea du horretarako. Franco hil ondoren go lehen urteetan kokatua, baserri girotik –Zubieta– hirira –Errenteria– Magisteritza ikasketak egitera doan neska baten gogoetak ditu ardatz *Gure bide galduak* antzezlanak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Kalean da martxoko

aizu!

- Marimendi, aisialdia eta aldarrikapena
- Gasteiz, green eta berde
- Igeldoko jolas-parkeak 100 urte
- Elizen bestelako erabilerak
- Gorka Julio Teketen arin-arin

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizunet.org

Abarak

JON TORNER


Maite minak itsututa

Maitez minduta. Cristina Duran eta Miguel Angel Giner Bou. (2011)


Espainiako Gobernuak Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunerako Ministerioa.

36 orrialde, koloretan. Interneten irakurgai: <http://bit.ly/xUpVRC>.

UKABILKADARIK EZ DA AGERI *Maitez minduta* komikian, ezta ostikorik ere. Oihu eta irain nazkagarriak ere ez. Indarkeria zantzuak nonahi daude, ordea. Begirada bat, agindu bat, debekuak, mugak, kontrola, bikotekidearen jabetza... Genero indarkeria ez baitu soilik ubeldura batek markatzen. Tratu txarrek hamai-ka adiera izan dezakete, eta horiek antzeman, prebenitu eta salatzea ezinbestekoa dela erakutsi nahi du esku artean dugun komikiak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendurik dago, eta euskaraz ez ezik, katalanez, galegoz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez ere argitaratu du Espainiako Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunerako Ministerioak. Hitzaurrea Miguel Lorente Acosta Genero Indarkeriaren aurkako gobernu ordezkariak idatzi du: “Komikiko protagonistak –Olivia eta Martin– edozein neska-mutiko izan daitezke. (...) Jende ezaguna, hasieran oso jatorrak diren mutilez maite mintzen diren neskak, baina ondoren haien jabe direla pentsatzen duten mutilak, neskak beraienak direla uste dutenak, beraien



Miguel A. Giner Bouk
idatzi du komikiaren
gidoia, eta ilustrazioak
Cristina Duran
Costellek egin ditu.



ondasun balira bezala”. Jabetzari buruzko zeharkako erreferentziak maiz agertzen dira komikian. Martinek, apurka-apurka, Olivia lagun eta senideengandik aldenduko du, bere planen menpe jarriko du... Komikiak indarkeriaren arrastoan jartzen gaitu, eta balio du arriskuez ohartarazteko. “Baina” bakarrak, ilustrazioen kalitatea –inportanteena mezua dela ahazterik ez dagoen arren–, eta “ekarri freskagarri puta horiek” moduko esaldi deserosoen orde, “freskagarri *****” zentsuratzaila bezalakoak jartzea. Errealitatearen isla izan nahi duen nerabeei zuzendutako komiki batean, alferrikako baliabidea da nire ustez.



ZIO

ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BFA
DFB

BIZKAIA
BIZIA

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

GANTZ PERTSONAIA IDEALIZATU	↓	PARETA MEHE TELEGRAFI ZERBITZUA	↓	BAKOITZAK BAT	↓	EZ EME NORAT ATZIKIA	↓	INSEKTU MOTA ALEAK HAUSTU	↓	ARGIZARI PERTSO- NALAREN JAIOTERRIA	↓	HERRI BATE- KO LEGEDI KONDEAREN MAILA	↓
↓		↓		GANORAZKO EINSTENIOA	↓	↓		↓		↓		↓	
PERTSONAIA- REN IZENA POLTSA TXIKI	→			↓		HILTZEN DENA 10 ERROMA- TAR ERARA	→						
↓						↓		TELEFONOA- REN SOINU EUSKAL FONEMA	→				
Bai ZERA!	EZEZTATZE- KO PERTSONAIA- REN ABIZENA	→								DAGO BURUAN ZAMA EROA- TEKO ZAPIAK	→		
↓	↓			KAFEA				ERABAT BETE HOTS, ZARATA	→	↓		LOTURARIK GABEA	
BOKAL ERREPIKATUA BURU BATZAR	→			↓								↓	
↓				KILOA HERRI NAFARRA	→			Uso URRATU ADITZAREN ERROA	→				
EUSKAL ARTISTEN ELKARTEA ERRUKARRI	→			↓	ASKE ... KLUX KLAN	↓	ZILARRAREN SINBOLOA BI GEHI BI	↓	URANIOA EUSKARA IRAKASTEN DU	→	KALBEIRA BEIRA BARIK JOKAMOLDE	→	
↓				↓	↓		↓	↓				TENPERA- TURA LITIOAREN SINBOLOA	
MUNDU FISIKOA ZAPARRADA, ERAUNTZIA	→						ERAMAILA SUFREAREN SINBOLOA	→				↓	
↓				EUSKARAREN DIALEK- TOETAKO BAKOITZA	→		↓						



Nola aldatu diren gauzak

Bere haur den-
boretatik gertatu
diren aldaketa izu-
garrien nondik
norakoak azaldu
nahian ari zaio aito-
na Joxe Manuel
Idoia ilobari:


– Hara! Ni haurtxoa nintzela,
amak pezeta bat eman eta izkina-
ko dendara bidaltzen ninduen.
Eta ba al dakizu zer?

– Zer, aitona?
– Etxera poltsa
bete gauza itzultzen
nintzela: pare bat
esne litro, dozena bat
arrautza, bi barra
ogi, ardo botila,
patatak, azukre pake-
tea, galletak eta txokolatea!

Eta ilobak, begiak arrarpalo:
– Aitona, baina zuen garaian
ez al zegoen bideo-zaintzarik?

Soluzioa

F	K	O	R	N	D	A	S	O	L	E	A	I
E	A	Z	K	O	R	N	D	A	S	O	L	E
O	E	T	A	Z	K	O	R	N	D	A	S	O
A	R	E	H	I	L	K	O	R	N	D	A	S
B	A	R	E	H	I	L	K	O	R	N	D	A
H	T	O	E	L	S	A	T	X	A	A	A	A
Z	M	I	T	O	E	L	S	A	T	X	A	A
M	I	T	O	E	L	S	A	T	X	A	A	A
P	O	L	T	S	A	T	X	A	A	A	A	A
A	T	X	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
B	E	R	A	E	K	A	L	E	K	A	L	E
U	R	R	I	K	A	L	E	K	A	L	E	E
N	A	T	U	R	A	E	K	A	L	E	E	E
J	A	S	A	E	K	A	L	E	E	E	E	E



**Garaiko errealitatean
kokatuko zaituen denboraren orratza**

Oparitu **Argia** harpidetza
independentzia astero ikusten da

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Langune, hastapeneko lainoak barreiatzen ari dira

DUELA HILABETE BATZUK Langune, Hizkuntzen Industriaren alorreko Euskal Herriko Enpresen Elkartaren egoeraz iritzia eman nuen (ikus ARGIA, 2281. zbkia.). Orduan nioen: “Egia da Langune egituratze fasean dela, baina kezka sortzen didaten hainbat gauza ikusten dizkiot. (...) Adibidez, administrazioen aurrean dugun ‘kategoria industrialak’ minimoetan segitzen duela”.

Orduz geroztik, arestian aipatu bezala, aldaketak nabari izan ditugu Languneko kideok eta gero eta barneratuagoa dugu elkarte tresna erabilgarria dela hizkuntzaren alorrean aritzen garen enpresontzat, krisi garaian sortutako elkarteak sortzeak dituen zailtasunak menderatzeko bidean jarrita. Jaiotzako une latzak igaro ondoren haztea baino ez zaigu geratzen, eta lerro hauek baliatuko ditut Langune une honetan lortzen ari den zerbait nabarmentzeko: hizkuntza-enpresak enpresa industrialen kategoriara igarotzea geure administrari publikoen buruetan, haietako askorentzat hizkuntzen edota edukien alorrean ari garenok bigarren mailako industria baikara oraindik.




BITANTA.COM



Eguzkiaren jarduera, biziagotzen

EGUZKIAK hamai-ka urteko zikloak ditu, hau da, hamaika urtetan bere jarduera apaldu egiten da, eta hurrengo hamai-keetan areagotu. Une honetan goranzko joera dugu, eta 2013an izango omen da jardueraren gailurra. Horren abisua



NASA

dira otsailaren 23an eta 24an gertatutako bost leherketa handi. Leherketa horiek eragin handia dute gure atmosferan, gure satelliteetan eta komunikazio-tresnetan. Poloen inguruetan, jada, izugarritzko aurorak ikusi dira.



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

Txutxu-mutxuka aritzea osasungarria omen da

Norbaitek egindako zerbaiten inguruko txutxu-mutxuak arazo iturri izaten dira gehienetan, bai “zerbait” egin duenarentzat, baita zabaldu duenarentzat ere. Baina Kaliforniako Unibertsitateko hainbat ikerlarien arabera, txutxu-mutxuka aritzeak uste baino abantaila gehiago du.

<http://ttiki.com/35354> (Gaztelaniaz)

Maiek tabakoa erabiltzen zuten duela 1.300 urte

Tabakoaren aipamenak ezagunak ziren maien hieroglifikoe-tan, baina orain nikotina aurkitu dute euren ontzi batean. Oraindik goiz da esateko nola erabiltzen zuten tabakoa maiek, baina erabili erabiltzen zuten. Ikerlarien ustetan, orain bezala. Errez, alegia.

<http://ttiki.com/35355> (Gaztelaniaz)

Argia baino azkarrago mugitzen diren neutrinoez iritzi bat

Uste baino zientzialari gehiago asaldatu ziren CERNek argiaren abiadura baino azkarrago dabilzan neutrinoak aurkitu zituela adieraztean. Neurketan egindako akatsak topatu nahian, arazoa neurketa egiteko tresnetan egon daitekeela adierazi dute orain.

<http://ttiki.com/35356> (Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Garunera

NIRE GORAINTZIAN *Rosmarinus officinalis*, eromeroa, errituertako besterik ez zuen erabiltzen gure amona Joxepa zenak. Kristautasuna bezala Mediterraneoetik ekarria izaki, sekta haren meza kontuei lotua dut oroi-tzapenean, erramua (*Laurus nobilis*), ihia (*Juncus* sp.) eta palmondo hostoa (*Phoenix canariensis*) bezala. Inguruan ditudanen akorduan ere bedeinkatze bidean ziren kandela-sortei lotutako adarra da duten eromeroaren gogoramen bakarra. Euskaldunon gomutan zuhaixka honek ez du leku asko hartzen...

Gerora izan dut bere berri. Erromeroaren esentzia eta olio azaleko ez azaleko arazoak sendatzeko erabiltzen dira: burusoiltasuna, giharretako minak eta abar. Bi lanetan da iaioa landare hau: odolaren ibilia errazten du eta antioxidatzaile indartsua da. Odol-ibilia hobetuta oxigeno gehiago iristen da eta dena delako giharrak aiseago lan egingo du. Antioxidatzaile, zahartzea atzeratzen du eta endekatzea dakarten hezueria edo artrosia bezalako gaixotasunak

artatzeko bezala, zahartzearen itxurari aurre egiteko kosmetikan gogotik darabilte.

Gogoan urrun izanagatik, bururako ona. Azalean musuaren bisajea txukuntzen digu. Sakonean garunera oxigenoa eramanez memoria hobetu. Bai, buztin-lurra kareak bezala medeatzen du eromeroaren urak gure memoria.

Batez beste kilo eta erdi eskaseko giharra izanagatik, arnasten dugun oxigenoaren %22 garunak harrapatzen omen du. Omen. Batzuetan besteetan baino biziki nabarmenago izaten den oxigeno eskasia tutarrez urritu baino lehenago eromero-ura hartu. Hartzazu. Zuk bai, zuk. Elkarrekin hartuko dugu.

Ez asko, baina lan bera egiten duten landareak beti izan dira gurean: ahobia (*Vaccinium myrtillus*), milorria (*Achillea millefolium*) eta ezkaia (*Thymus vulgaris*), adibidez...



Erromeroa, *Rosmarinus officinalis*.



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Mandarinondoa erosi genuen aurrekoan, Elgoibarretik Azkarate bidean eguteran daukagun lursaillean (itsasmailatik 400 metrora) landatzeko asmotan. Entzuna dizugunez, fruitu-arbolak ilbeheran landatu behar dira. Zer aholku emango zeniguke? Lekua egokia al da mandarinondoarentzat?

Aitziber Dorronsoro (Deba).

Aupa Aitziber. Ezagutzen ditut Elgoibar inguru horretan laranja, limoi eta mandarina eder askoak ematen dituzten arbolak. Lagun batzuen etxeak dastatu berriak ditut.

Landarea bere ontzian erosiko zenuten, noski. Bada,

mandarinondoak bezala neguan hostajeari eusten dioten landareak aldatzeko sasoia laster da, martxoa aldeko ilbeheran.

Aholku pare: toki ahal den egutera, epel eta babestuenean aldatu, eta neguan babestu. Hegoaldera begira dagoen horma baten kontra litzateke egokiena. Hormak beroari eusten dio eta babesen bat jartzerakoan errazagoa da. Estalkiren bat jarritz gero landarearen gainera ez bota, egitura batekin landaretik gora eutsi eta beti enborra oihaltzaz bildu, hotzak landarea erretzen badu ere enborrari bizirik eutsi eta hortik berritu dadin.



Babeslea: Alkartasuna Kooperatiba elkarte



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritaren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 26

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com <http://www.alkartasunausurbil.com/>



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Olympe de Gouges, gillotinan hildako feminista

PARIS, 1789KO ABUZTUAREN 26AN. Batzorde Nazional Konstituziogileak *Gizonezkoen eta Herritarren Eskubideen Adierazpena* onartu zuen. Olympe de Gouges idazle eta politikaria bat zetorren Frantziako Iraultzaren printzipioekin eta Adierazpenak zioenarekin, baina zerbaiten falta sumatu zuen testu hartan: emakumezkoak. Hala, handik bi urtera, 1791n, *Emakumeen eta Emakumezko Herritarren Eskubideen Adierazpena* idatzi zuen.

Edo, hobe esanda, bi urte lehenago Batzordeko gizonek onartutakoa moldatu zuen. Sarrera moduan esaldi hau idatzi zuen: “Gizon, bidezkoa izateko gai al zara? Emakume batek egiten dizu galdera”. Ondoren Adierazpenaren artikuluetan “emakume” hitza ipini zuen “gizon” hitzaren orde, eta hainbatetan bi generoen arteko desoreka ere nabarmendu zuen. De Gougesen testua ez zuten sekula erakunde publikoek onartu, baina eremu publikoan nahiz pribatuan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ezartzea xede zuen lehen testua izan zen.

Emakumezkoen boto eskubidea, lan publikoak egiteko aukera, politikan sartzeko eskubidea, jabeagoak izatekoa eta kontrolatzekoa eta gizonezkoen hezkuntza berbera jasotzea aldarrikatu zuen. Baina ez zituen ideia feministak soilik jorratu. Jendarte



Olympe de Gouges (1748-1793), Marie Gouze ezizenez ere ezaguna, aitzindaria izan zen emakumeen eskubideak aldarrikatzen.

erreformak egiteko programa zabala idatzi zuen. Haurren eskubideen babesean aitzindari izan zen, baita dibortzioaren aldarrikapenean ere. Ezkontza sistema aldatzeko proposamena ere egin zuen: urteko kontratu berriztagarria izan behar zuen haren ustez. Langabetuentzako tailerrak eta eskaleentzako etxeak ere bultzatu zituen.

Horrez guztiaz gain, Olympe de Gouges estatu federalaren aldekoa zen, hots, girondinoekin bat egiten zuen puntu horretan. Eta aitzakia hori nahikoa izan zen Robespierre, Marat eta gainerako jakobinoentzat emakumeen eskubideekin tematutako idazle burges gogaikarri hartaz libratzeko.

1793ko abuztuan atxilotu zuten. Giltzapean bi afixa egitea, handik ateratzea eta kalean zabalkunde handia izatea lortu zuen. “Olympe de Gouges auzitegi iraultzailean” zioen batek; “Abertzale bat jazarria” besteak. Bere azken testuak izan ziren. 1793ko azaroaren 2an “epaitu” zuten, abokaturik gabe. Eta biharamunean gillotinatatu. Une horretan, beharbada, berak hilabete batzuk lehenago idatzitako esaldia etorriko zitzaion gogora: “Emakumeak urkamendira igotzeko eskubidea du; oholtzara igotzeko eskubidea ere izan behar du”.



Arrastoak

Megan eta Morag: Dollyren lehengusina ahaztuak



1996KO MARTXOAREN 7AN, Eskoziako Roslin Institutuak enbrio zelula batek bi ardi berdin jaio zirela jakinarazi zuen: Megan eta Morag. Transferentzia nuklearraren teknika erabilia lortu zuten enbrioia klonatzea. Baina handik hilabete gutxira, bikiek Dollyrekin par-

tekatu behar izan zuten ukuilua. Dolly zelula heldu batetik arrakastaz klonatutako lehen ugaztuna zen, eta hark eraman zuen protagonismo osoa. Alabaina, transferentzia nuklearrik gabe, hau da, Megan eta Morag gabe, ez zen Dollyrik izango.

Nafarroako konkista

1512ko topikoei aurre egiten

“Nafarroa oinarrian espainola da” baina “Konkista justifikatzen jarraitzea arinkeria bat da gaur egun”. Halaxe adierazi zuen María Puy Huici Goñi historialariak bere *En torno a la conquista de Navarra* (1993) liburuan pentsatzen zuena, konplexurik gabe, kontraesanak eta barne zalantzak biluzirik utzita. Huici Goñiren idazlanak ederki astindu zuen historia ofiziala, eta ederki ordaindu zuen atrebentzia.

URKO APAOLAZA

HAINBAT TOPIKO elikatu izan dira XIX. mendetik Nafarroako konkistaren inguruan. Topiko horiek zabaltzeko orduan Victor Praderak leundu zuen bidea, bere *Fernando el Católico y los falsarios de la historia* (1922) liburuarekin, eta frankismoan Opus Deiko unibertsitatearen bidez hegemoniko bihurtu ziren. Segidan batzuk: 1512an ez zen konkistarik izan, anexioa baizik; Fernando Katolikoak eskubide osoz bereganatu zuen Nafarroa Gaztelarentzat, Aita Santuaren baimenarekin; Pirinioetako “erreinu txikia” modernitatera sartu zen; frantsesen kontrako gerra izan zen; nafarrek erraz onartu zuten aldaketa, *aeque principaliter* (berdinen artekoa) izan zelako... Azken batean, 1512an jazotakoa ona izan zela Nafarroarentzat.

Navarrismoaren inguruan azken urteetan aldaketa batzuk sumatu dira. Esaterako, historialarien eta politikarien artean jadanik ez da zalantzan jartzen konkista bat izan zela. Hala eta guztiz ere, topiko horien mamia defendatzen segitzen du ildo ofizialak. UPNk 500. urteurrenaren harira bere militanteen artean zabaldutako gutuna leitzea besterik ez dago (“konkista ez zen bereziki odoltsua izan”) edo *Pregón siglo XXI* kultura aldizkarian 2012ko otsailean argitaratu diren hainbat



JUAN LUIS LANDA / EREIN

Huici Goñi: “Nafarren erresistentzia esan izan dena baino handiagoa izan zen”.

akademikoren artikulua aztertzea (“Nafarroak ezer gutxi egin zezakeen, salbu eta bere patua itxarotzea”). Konkista ukatzetik, konkista justifikatzera igaro dira.

Eta orain, egin ariketa ezinezko bat irakurle: joan 19 urte atzera eta saiatu gaur egungo justifikazioei prisma hartatik erantzuten. Horixe egin zuen María Puy Huici Goñik

En torno a la conquista de Navarra liburuarekin, historialariarena eta igarlearena. Egun oraindik bizirik dirauten topikoak banan-banan desegin zituen eta esaldi gogoangarria iltzatu zien ordura arte lubakia- ren alde berean izan zituen kideei: “XX. mendean hura justifikatzen jarraitu nahi izatea, nolabait, biolentzia defendatzea da”.



NAVARRA.ES

Topiko askok bizirik diraute. Irudian, 2012ko urteurrenak antolatzeko batzordea.

Comptos Ganberan zer aurkitu zuen?

Deierriko Ziritza herrixkan jaioa, María Puy Huici Goñi eskola-irakasle izan zen urte askoan. Berandu heldu zion historia ikertzeari, 46 urte zituela egin zen Filosofia eta Letretan doktore, Zaragozako Unibertsitatean, eta tesi garrantzitsua idatzi zuen Nafarroako Gorteen inguruan. Tesiaren ondorioak liburu batean bildu zituen 1963an: *Las Cortes de Navarra durante la Edad Moderna*. Hasieran mundu akademikoan onarpen gutxi izan zuen arren, urteen poderioz ikerlana erreferentzia bihurtu zen Nafarroako historiaren zati hura arakatu nahi zuten guztientzat.

Jubilatu zenean, jadanik izen handiko historialari bihurturik, proiektu erabakigarri bati ekin zion: Comptoseko Ganbera ikertzeari. Nafarroako erreinuko kontu-auzitegia 1836an desagerrarazi zuten, zentralismoaren goraldi betean; 1980an Nafarroako Parlamentuak eraikina goitik behera eraberritu eta erakundea berriz martxan jarri zuen. Interes politiko handia zegoen Nafarroaren izaera foralean sakontzeko eta testuinguru horretan proposatu zioten Huici Goñiri Comptos Ganberako funtsak ikertzea, XIV. eta XV. mendeen Europar dagoen artxiborik aberatsenetakoa. Hilabete batzuetako lana izan behar zuena, 20 urteko eta lau liburukitako obra mardula bilakatu zen. Baina tarte horretan, 1512ko kon-

kistaren inguruan zituen ideiak zeharo aldatu zituen. Zer gertatu zen? Zer aurkitu zuen dokumentu zahar haietan?: “Argitasun gehiagok ikusi ahal izan dut 100 urtez okupazio-gudaroste baten pean egon ginela, eta horrek lehen ulertzen ez nituen gauza asko azaldu dizkit”.

Huici Goñik ez zuen erreparorik izan iraganeko hanka sartzeak zuzentzeko –“orain, askoz dokumentazio gehiago ikusi dudala, Gorteen liburuan esandako gauza batzuk aldatuiko nituzke”–. Konkistaren inguruko konklusioekin *En torno* idatzi zuen ausarki, jakinik bere inguruko politikari eta historialarien kritika jasoko zuela. Nafarroako Gobernuak ez zuen liburua publikatu nahi izan, hortik atera kontuak.

Nafarroa ehun urtez okupaturik egon zela “deskubritzeak” aldarazi zizkion Huici Goñiri konkistaz zituen ideiak

Comptos Ganberaz egindako lan erraldoia eskertzeko, erakunde horren domina jaso zuen 1995ean, eta Karlos III.aren Gurutzea ere eman zion 2001ean Nafarroako Gobernuak, besteak beste Nafarroako ereserkiak egindako lana aintzat hartuz. Fitsik ere ez *En torno* liburuaz. María Puy Huici Goñi 2008ko apirilaren 11n hil zen; *Diario de Navarra* ohar zabala kaleratu zuen

hurrengo egunean, baina ez zioen ezer konkistari buruzko bere ideiez, ezer ez *En torno* liburuaz, tabua baitzitan.

Beamondarrak konkistaren kontra

Liburuko esaldi bakoitza historiografia foral eta espainiarrak Nafarroako konkistaz sortutako irudikariaren kontrako torpedo bat da: Fernandok denak engainatu zituen eta zalantzak zituen konkistaren zilegitasunaz; gerra ez zen frantsesen kontra egin, Nafarroako Estatuaren kontra baizik; Nafarroa ez zen sekula Frantziarekin anexionatu; esatea Gaztelak Nafarroa eraso zuela Frantziaren aldera lerrokatu zelako, zini-moa da; Bloiseko tratatua *Katolikoa*-ren azken aitzakia izan zen konkista hasteko; Nafarroa erreinu txikia zen arren ez zegoen abandonaturik, estrategikoa zen... eta segi.

Bestalde, Huici Goñik Comptoseko Ganberan egindako lanari esker, xehetasunez zuen beamondarrek XV. mendean izandako bilakaeraren berri, eta *En torno* liburuan tarte handi bat eskaini zion gaiari. Asko idatzi izan da beamondarrek Nafarroako konkistan izan zuten parte hartzeaz. Behin eta berriz gogoratzen da Leringo kondea –beamondarren burua– Iruñean sartu zela Albako Duke gaztelarren ondoan. Nafarren zati batek konkista onartu eta parte hartu zuela iradokitzen dute testu ofizialek, Fernando Katolikoaren plataforma sendoa izan zela leinu hura. Huici Goñik sekulako garrantzia eman zion hori guztia gezurtatzeari.

Bere ustez Fernando Katolikoak beamondarren eta agramondarren arteko borroka aprobetxatu zuen Nafarroan eskua sartzeko; gerra zibila elikatzeko lagundu zituen beamondarrak: “Hori da egiaz nahi zuena: lehenik erreinua deuseztatu, gero konkistatu ahal izateko”. Eta lortu zuen, bi leinuen arteko ezinikusia handia zelako oso. Beamondarrak 1512ko kanpainen buru-belarri aritu ziren, egia da, baina ondoren gertatutakoa beste upel bateko ardoa izan zen. Huici Goñik dio Leringo kondea eta enparauak konkistarekin harrituta zeudela, areago, iturri klasi-koak aipatzen ditu esanez Albako dukea ez zela batere fidatzen bea-

mondarrez, agramondarrak bezain-beste zelatatzen zituela. 1513an Nafarroako Gortean beamondarrek Fernando Katolikoari zin egin ziotenean, mehatxupean egin zuten (*Crimen de lesa Magestad*); Nafarroa Gaztelara eransteko 1515eko akta ofizialean ez dago ordezkari nafarrik, ezta beamondar bat bera ere... “Ez alda arraroa?” galdetzen du bere kolkorako Huici Goñik. “1512an beamondarrak engainaturik sentitzen dira eta gaztelarren kontra egiten dute”, horra liburuko ondorio nagusietako bat.

Okupazioa: “Oraindik ondorioak jasaten ari gara”

Liburuan desmuntatzen duen beste topiko bat da nafarrek ez zutela konkista traumatikotzat jo. Hara zer dion Alfredo Floristan Imizcoz-ek, *navarrismoaren* ildo ofizialeko egile esanguratsuenetakoak: “Bistakoa da orduko nafarrek ez zutela gaztelarren konkista euren ‘nazioaren’ amaiera tragiko moduan sentitu”. Esaldi horri erantzuten saiatzen da Huici, testuliburutan hainbeste aldiz irakurritako “inkorporazio zorientsuaren” argudioari, alegia. Beretzako anexioa guztiz traumatikoa izan zen eta beamondarren artean egondako aldaketak erakusten du hori: konkistaren aurretik erreinuko bi leinuetatik batek gorroto zuen Gaztela, konkistaren ondoren, biek. Harritura zegoen gorroto eta mesfidantza horren ondorioz erreakzio subertsibo handiagorik ez zelako egon: “Zazpiehun urte dituen erreinu bat ez da horrela desagertzen, hotz-hotzean”, dio liburuan.



En torno a la conquista de Navarra, autodedizioa, 1993, 170 orr.

Okupazioa da gakoa. Nafarroa ehun urtez baino gehiagoz gaztelarren ejertzitoak okupaturik egon zela “deskubritzeak” aldarazi zizkion konkistari buruz ordura arte zituen ideiak historialari nafarrari; kontraesan ugari argitu zituen modu horretan: “Isildu eta disimulatu egin behar zen, amore eman eta onartu, edo bestela hil”. Bere ustez okupazioa 1476an hasi zen, Tuteran agramondarrek eta beamondarrek hitzartutako menian, Gaztelak Nafarroako hainbat hiribildu eta gazteluren gaineko jabetza eskuratu zuenean. Eta 1612an oraindik okupazio-gudaroste batek zapaltzen zuen Nafarroa. Urte horretan Nafarroako Gorteen Madrilgo Gerra Kontseiluari eskatu zioten erregearen tropak ordezkari zitzala bertoko aitoren semeek osatutako miliziekin; baina honek ezetz, euskalduntzat jo zitezkeen frantse-

sak infiltratu zitezkeelako soldaduen artean. “Oraindik ez ziren nafarrez fidatzen”, dio Huici Goñik. 1572an Iruñeko ziudadela egin zenean matxinadaren beldur ziren, “nafarrei usteko” diseinatu baitzuen Antonelli ingeniariak. Berrogei urte geroago ez ziren gauzak gehiegi aldatu.

XVI. mendean Nafarroak halako loraldi ekonomiko eta kultural bat bizi izan zuela azaltzen saiatu izan dira asko eta asko. Huici Goñiren tzat horrek ez du logikarik. *En torno* liburuan esplikatzen du, hain ondo ezagutzen zituen Comptoseko Ganberako zerga-erregistroetan apenas biltzen dela ezer Aro Modernoaren hasieran; herri batzuetan 20 urteko tarteak igarotzen dira kontuak egin gabe. Jadanik ez dago banderizoen gerra zibilik, baina okupazio-gudaroste bat bai, hein handi batean nafarren ekarpenetatik bizi dena: “Gaztelak proiektaturiko inperioa mantentzen Nafarroak hainbeste jarri behar izan zuen, oraindik haren ondorioak jasaten ari dela”.

Huici Goñiren esanetan “Inperioaren boterearen” ondorioz Nafarroako konkista istilu soil bat bailitzan geratu zen herrien bilakabidean: “Gaur abertzaletasunak bueltan datoz; jendeak bere erroak bilatzen ditu. Ez da erraza Robinson izatea bere garaian. Ezin da iraganera itzuli, ezta hura egungo mentalitatez argitu ere, baina ezin da etorkizun seguru eta benetako bat eraiki gaurko egoerara eraman gaituzten gerta-kizun haiek ezagutu gabe, egia ahalik eta gehien hurbilduz”. ■



iRuNazarra
TaBERNa • JaTeXea

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadribus.com

Zerga sistema

Herritarrek multinazionalak bezainbeste ordaintzen dute

Herritar batek Ogasunari zergetan ordaintzen diona, multinazionalak elkartearen zergarengatik ordaintzen dutenaren tankerakoa da. Areago, sozietatea zenbat eta handiagoa izan orduan eta gutxiago ordaintzen du: elkarte txikiek %20, eta multinazionalak, aldiz, %16,9.

DANIEL UDALAITZ



JAGOBIA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Hainbat herritar errenta aitortpena egiten bulego batean.

EZTABAIDA ETENGABEA izaten ari da azkenaldian zerga sistemari buruz. Logikoa eta bidezkoa litza-teke gehien irabazten dutenek Ogasunari zerga gehien ordaintzea. Baina errealitatea bestelakoa da. Bai Espainiako Estatuan, baita

Frantziakoan ere, enpresek dedukzio eta zerga-kreditu ugari izaten dituzte. Hala, Espainian elkartearen zerga %30,7koa da eta Frantzian %33,3koa, baina portzentajea ia erdira jaitsi dezakete zenbait kasutan. Hego Euskal Herriko foru

aldundietako datuak ere oso antzekoak dira, enpresek %28 ordaintzen dute, baina dedukzio ugari dituztenez, kopurua asko jaisten da. Azken batean, herritar soil batek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin (PFEZ)

Europar Batasunak elkarteen zerga bateratu nahi du

Multinazionalak abantaila handiak dituzte zergak ordaintzerakoan. Eta orain abantaila handiagoak nahi dituzte. Horretarako Europar Batasuna (EB) estutzen ari dira, elkarteen zerga bateratua ezar dezan. Alemania eta Frantziaren presiopean, Europako Batzordeak makineria politikoa martxan jarri du enpresen mozkinen gaineko zerga bateratua finkatzeko. Horrek ez du esan nahi estatu kide guztiek tasa nominal bera ezarri behar dutenik. Zerga oinarria zehazteko kalkuluak EB guztian berdintzea da asmoa. EBren zerga sisteman aurrera egiteko estatu kide guztien adostasuna behar denez, ekimen honek luze joko du. Oraingoz,

Sarkozyk adierazi du Frantziako elkarteen gaineko zerga portzentaje baxuagoa duen Alemaniakoaren pare jarriko duela.

Bateratze hori nahi dutenak eta horretarako presioa egiten ari direnak multinazionalak dira, haiei interesatzen baitzaie. Egoitzak EBko hainbat herrialdetan dituen multinazionalak, herrialde guzti horietako administrazioetan aurkeztu behar du elkarteen gaineko zerga aitortpena. Oinarri bateratua izanda, administrazio karga hori arindu egingo litzateke, enpresak egoitza nagusia duen herrialdeko ogasunean baino ez bailuke aurkeztuko aitortpena.

ordaintzen duena eta enpresek ordaintzen dutena oso parekoak dira.

Cinco Días ekonomia egunkariak egindako azterketa baten arabera, Espainian 33.000 euroko zerga oinarria duen zergadun batek %16,35 ordaintzen du PFEZagatik. Elkarteen zergan 1.000 milioitik gorako negozio zifra duen enpresari ezartzen zaion zergaren parekoa da.

Baina badago alde bat. PFEZagatik diru-sarrerak administrazio zentralak bildutakoaren %42,9 da. Elkarteen zergatik bildutakoa, aldiz, ez da %10era iristen. 2007tik hona, zerga horren bidez bildutakoak %68 egin du behera. Hau da, nagusiki lan eta aurrezpen errentek hartzen dute beren gain zergen zama. Egoerak aldaketa sakona behar du, zergak guztien artean modu bidezkoan bana daitezken. Baina, hain zuzen, Espainiako Gobernuak hurrengo bi ekitaldietan PFEZek gora egingo duela jakinarazi du. Ikusiko dugu zer egiten duten Hego Euskal Herrian.

Enpresa zenbat eta handiagoa, orduan eta zerga txikiagoa

Teorian ezartzen den karga-tasaren eta benetan ordaintzen denaren artean –tasa etekinak eta zerga dedukzioak kendu ondoren– aldeirik handiena duen zerga da elkarteen gainekoa. PFEZ bezala, progresiboa da. Legeak dio enpresa txiki eta ertainei enpresa handiei baino tasa apalagoak ezarri behar

zaizkiela, baina dedukzioek joera hori irauli egiten dute eta, hala, praktikan, enpresa baten bolumena handitu ahala zerga gutxiago ordaintzen du, erlatiboki. Hortaz, sei milioi eurotako negozio zifrara iristen ez den enpresa txikiak %20 ordaintzen du, eta 1.000 milioi eurotik gorako sarrerak dituen multinazionalak, aldiz, %16,9.

Krisialdia hasi zenetik igoera izan ez duen zerga nagusi bakarra elkarteen zerga izan da. Lan eta aurrezpen errentek, aldiz, zerga igoera handienak jasan dituzte

Espainiako Estatuko elkarteen zergaren ezaugarri nagusietakoa tasa ofizial oso altua da (%30,7), baina tasa altu hori legeek ezartzen dituzten zerga onura ugari apaltzen dute. EAEn elkarteen zerga ofizialaren tasak baxuagoak dira (%28), baina, azkenean, elkarteek ordaintzen duten benetako zerga ez da %20ra iristen.

Lan errenten zergak soilik igotzen dituzte

Krisialdia hasi zenetik igoera izan ez duen zerga nagusi bakarra elkarteen zerga izan da. Zapateroren gobernu ohiak bost puntutan jaitsi zien zerga lanpostuak man-

tentzen zituzten mikroenpresei. Dirudienez, Rajoyren egungo gobernuak neurria atxikitzeke asmoa du. Lan eta aurrezpen errentek, aldiz, zerga igoera handienak jasan dituzte. PFEZ eta elkarteen zerga alderatzerakoan, kontuan hartu behar da lehena diru sarreraren gainean ezartzen dela, eta elkarteen zergak, berriz, enpresaren mozkinak zergapetzen dituela.

Horregatik, krisiaren ondorioz zergetatik bildutakoa murriztu egin da. Espainiako Estatuko Ogasuneko 2010eko datuen arabera elkarteen zerga ordaintzen duten ia milioi eta erdi konpainietatik soilik %32,8k lortu zuen “zerga oinarri positiboa”. Hau da, elkarte gehienek ez zuten zergarik ordaindu.

Elkarteen gaineko zergaren eta lan errentaren gaineko zergaren arteko aldeak oso garbi ikus daitezke 2007. urteari, hazkunde ekonomikoko aldi horri, erreparatuta. Urte hartan, elkarteen zergaren bidez lortutako sarrerak administrazio zentralaren zerga bilketa guztia- ren %22,3 izan ziren. PFEZaren bidez, berriz, %36,2 bildu zuten urte berean. Egun, elkarteen zergaren bidez bildutako kopurua amildu egin da eta, Ogasuneko iturrien arabera, kopuru osoaren % 9,6 besterik ez da. Baina langabeziak gora egin arren, PFEZak kontrako joera izan du, eta dagoeneko zerga sarreraren %43 izatera iritsi da. ■



Mazin Naif Rahim

Irakeko buruzagi mandeoa

«Gurea zen Kristoren hizkuntza»

Herri zanpatua bezain ezezaguna da mandeoen. Mesopotamian hogei mendez bizi arren, gure mendea izango da ziurrenik euren azkena. Buruzagi mandeoarekin hitz egin du ARGIAK. Honako hau desagertzeaz dagoen kulturaren azken testigantzetako bat izan liteke.

KARLOS ZURUTUZA

ZAILA, oso zaila da antzinako herri honetako kideak aurkitzea egungo Iraken. 2003ko okupazioaz geroztik, hamar mandeotik bederatzik ihes egin du herrialdetik; muturrekoek hil ez dituztenek, jakina. Herri horren berri izan dugu desagertzeaz dagoenean; nekez gerta dakiguke gauza etsigarriagorik.

“Euskal Herria? Ez neukan herri horren berririk”, diosku Mazin Naif Rahim buruzagi mandeoak. Ezta guk ere haienik. Jakinurak jota bertaratu gara Irak hegoaldeko Basorako egoitzara.

Zuen liburu sakratua al da esku artean duzun hori?

Bai. *Jainkoaren Altxorra* deitzen diogu edo *Adamen Testigantza*. Bi aldeetatik zabal daiteke: bata Jainkoari dedikatua dago, eta gizonari bestea.

Zein hizkuntzatan dago idatzita?

Arameo-mandeoaz, hau da, arameoaren gure dialektoan. Alfabetoa ere gurea da, guk baino ez dugu erabiltzen. Tamalez, liturgian baino ez da gorde hizkuntza gurean. Apaiza naizenez, liburua irakurri eta ulertu dezaket, baina ez ordea, gure komunitateko beste kideek. XX mende Erdiko “arabiar” kanpainak bortizak daude hizkuntz hondamendiaren atzean. Gure gurasoak azkeneko mandeo hiztunak izan ziren.



KARLOS ZURUTUZA

Mazin Naif Rahim buruzagi mandeoa, eskuetan liburu sakratua eta atzean *Drabsa* izeneko gurutzea dituela. Haien gurutzeak olibondo adarra eta San Joan Bataiatzailearen oihala dauzka.

Arabieraz mintzo zarete, beraz?

Bai. Dena den, liburuaren arabierazko ale bat argitaratu genuen. Gure bizilagun musulmanen artean zera zabaldu zen, apostasia bultzatzen genuela. Liburua irakurri duena berehala jabetuko da guk ere jainko bakarrarengan sinesten dugula, otoi egiten diogula eta *zakat*-a ohikoa dela gurean.

Zakat-a?

Limosna, karitatea; txiroari laguntzea.

Iraken baino ez al zaudete?

Ez, Iran hegoaldeko Khuzestan eskualdean badira mandeoak. Liturgian ez ezik, eguneroko bizitzan ere mantendu dituzte sustraiak.

Arameoa aipatu duzu. Ez al zen Kristoren hizkuntza?

Gurea zen Kristoren hizkuntza, baita San Joan Bataiatzailearena ere. Hamaika aldiz entzun behar izaten dugu kristauak garela, baina hori ez da egia. Adam dugu lehen



Kristautzat hartu izan dituzte, baina mandeoa direla diote. Ez dira Kristoren jarraitzaileak, San Joan Bataiatzailearenak baizik. Bataioa erritu guztietan erabiltzen dute, ezkontzan, hiletan...

profeta eta azkena San Joan Bataiatzailea. Egia da Joanek Kristo bataiatu zuela, baina hark bere bidea hartu zuen gero. Funtsean, benetako erlijiotik desbideratu zen.

Ez al da atzean duzun gurutzea zuen ikur nagusia?

Gure gurutzeak olibondo adarra eta Bataiatzailearen oihala ditu zintzilik beti. *Drabsa* izena du. Esan bezala, Kristo aldendu zen gugandik, eta ez alderantziz.

Traidoretzat omen duzue Jesus, ez da hala?

Oso hitz gogorra da hori, ez genituzke gure bizilagun kristauak iraindu nahi.

Arameoa hilda zegoelakoan nengoen.

Gauza jakina da hizkuntza oro aldatu egiten dela denboraren poderioz. Joanek hitz egiten zuena ez da, zehatz-mehatz, gaur egun hitz egiten dena. Edonola, adibide oso adierazgarria jarriko dizut. Ikusita

daukazu *The passion of Christ* (Kristoren pasioa) filma?

Mel Gibsonek egindakoa?

Bai. Latinez eta arameoz egin zuen. Bada, guk eta gure kristau bizilagunek ia dena ulertzen genuen, arameoz zeuden elkarrizketak, jakina.

Zertan bereizten zarete, beraz, kristauengandik?

Bataioa sakramentu bilakatu zuten kristauak, baina guk erritu guztietan mantendu dugu egundaino. Horrela ospatzen ditugu jaiotzak, ezkontzak, hiletak... eta eguneroko otoi arruntak. Ibaian sartzeak garbitu egiten ditu bai gorputza baita espiritu ere. Tigris eta Eufratesen ibaiertzetan ospatu dugu gure erritua 2.000 urtez. Tamalez, segurtasun eza eta kutsadura direla-eta, Basoran etxean gordeta egin behar ditugu gure zeremoniak. Putzu txikietan sartzen gara.

Bestelako alderik?

Ez dugu uste Jainkoak Adam eta Eba paradisuak bota zituenik, saga-

“Uretako” herria ito beharrean

Mandeoak talde etniko eta erlijio-soa dira eta hogeiki mende daramatate Irak eta Irango hegoaldeko lurretan. Lehen Mundu Gerraren ostean, besteak beste, Basora eta Bagdad hirietara jo zuten haietako askok. Gaur egun zenbat diren nekez jakin daiteke, munduan zehar sakabanatu baitira. Hainbat ikerketak 60.000 inguru direla diote; 5.000 inguru baino ez daude Iraken.

Saddam Husseinen garaian ere gorriak ikusi zituzten mandeoeak, Irakeko buruzagi ohiak musulman sunia ez zen oro susmagarritzat jotzen baitzuen.

2003az geroztik, apostasia “delituak” leporatuta, muturreko islamiarrek, suniek eta xiiek, mandeoa hil edo fedez aldarazi dituzte. Aldi berean, mandeoa bitxigile trebeak izan ohi dira eta delinkuentzia arruntaren atzaparretan erraz erortzen dira.

rraren kontua eta hori guztia. Bestalde, Jainkoak ez, aingeruek osatu zuten lehen gizakia. Jainkoak nola egin besterik ez zien erakutsi. Bi mundutan ere sinesten dugu: gurea eta “ilargiena”. Bost egunetan osatu zen azkena. Funtsean, Bataiatzailea da gure figura nagusia, bataioa erritu nagusia dugula.

Musulmanek eta kristauak ahalegin handia egin ohi dute euren sinesmena munduan zabaltzeko. Proselitismoa egiten duzue zuek ere?

Horretan ere desberdina gara: mandeo jaio beharra dago, ez dago fede-alda ketarik gurean. ■



Babeslea: Bilboko Udala

harrapa zank

bilborock-en
www.harrapazank.com
bilboko gazteen euskarazko aisialdi zirkuitua

enpresa da EITB Bilbako euskara enpresa enpresa da EITB

topagunea

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Euskarari buruzko jakingarriak

TXERRA RODRIGUEZEK EBPnren (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) txosten bat hartu eta hamalau datu entresakatu ditu. Guk hona ekarri ditugu horietako batzuk:

- Selektibitatea %60k egin zuen euskaraz 2010ean, 1995ean %25ek.
- Irakasle elebidunak EHUn 2009-2010 ikasturtean %40 izan ziren, 1988/89an %15 baino gutxiago ziren.
- Esparru formalen artean, udal zerbitzuetan erabiltzen da euskara gehien.
- 285 enpresak jaso dute azken

hamar urteotan euskara planak garatzeko diru-laguntza. 2009an 25.000 pertsonak egiten zuten lan euskara plana duten enpresetan.

- 2009an 2.342 liburu argitaratu ziren euskaraz.
- Elebidunen %35ak irakurri du euskarazko liburu bat azken hiru hilabeteetan, 2008ko datuen arabera.
- Musika euskaldunaren kontsumoa liburuena baino askoz handiagoa da (%79koa), baina kasu honetan gazteenak dira euskarazko musika gutxien entzuten dutenak.
- Bertsozalearen profila honako hau da: gizona, gaztea eta Gipuzkoako herri txiki batekoa.
- Euskara sustatzeko aurrekontuei dagokienez, 5.000 biztanletik gora-

ko herriek %2,06 eskaintzen diote, Eusko Jaurlaritzak %1,40, hiriburuak %0,69 eta foru aldundiek %0,66 (datuak 2008koak dira).

- Euskara da munduan 40. hizkuntza hizkuntza horretatik egindako itzulpeni dagokienez.

“Animatuta bazen, ezabatuta mina”

ARRASATE Euskaldun Dezagun elkarteak antolatutako Euskarazko 2. Palindromo Lehiaketako irabazlea Juan Mari Agirreurreta Elozegi aretxabaletarra izan da, *Animatuta bazen, ezabatuta mina* palindromoarekin.

BAHEA

Gorkaaz erabiltzaileak *Bihar da berandu* blogean esanak: “Baina orain, eskola publikoan behintzat, leku askotan laugarren hizkuntza eredu bat gogor, indartsu, hasi da. Gurean EA eredu deitzen diogu: eredu eleanitza. Ingelesa maila hobetzeko aukera hobearekin, ikasgai batzuk ingelesez.

Laugarren eredu honetan ere ikasleak ez dira ausaz matrikulatzen. Lehengo hiru eredueta gurasoen hautaketa hutsa baldin bazegoen, oraingo laugarren eredu honekin irakasleen eskua ere antzeman daiten.

Ez ditut oraindik ebaluazio-emaitzak ondo inon argitaratuta ikusi baina nago EA taldeetako emaitzak lau eredueta altuenak izango direla, alor edo gaitasun guztietan. Alde nabariarekin gainera. Horrelako taldeetara ikasle “onenak” bideratzen dira. Talde horietatik ikasle “txarrenak” erauzi egiten dira... Lehengo hiru hizkuntza eredueta gertatzen zena baina areagotuta. Irakasleek probak prestatu izan dituzte talde berri hauetara nortzuk joango diren ebazteko, espedientei begiratu zaie...

Etorkizun hurbilean ikusiko ditugu emaitzak. Eskola porrota eta eskola arrakasta ez da, inondik ere, lau eredueta ausaz banatuko”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Europako Banku Zentralak bankuen negozioa loditzen du

Europako Banku Zentrala (EBZ) bankuen laguntzan atera da beste behin ere eta bilioi erdi euro eman dizkie joan den astean. Espainiako bankuek 150.000 milioi euro eskatu dituzte. Abenduan beste bilioi erdi ziztatu zuen EBZk, prezio barregarrian –%1eko interesarekin– eta hiru urtean ordaintzeko. Beraz, bi hilabeteetan EBZk bilioi bat euro ziztatu die bankuei. Estatuek, banku zentralak eta EBZk egindako likideziarako ziztada guztiak gehituz gero, kopuru hori hainbat bilioi eurokoa litzateke. Ekonomia errealek, aldiz, ez du hortik onurarik ateratzen, krediturik ez dabilelako, ez enpresentzat, ezta familientzat ere. Zer ari da gertatzen? EBZk bankuei milaka milioi euro ziztatzen badizkie hauek kreditua azkartu dezaten, baina hau ez bada enpresa eta familietara iristen, esan nahi du norbait ari dela likidezia horrekin loditzen. Zalantzarik gabe, bankuak ari dira loditzen, diru publikoarekin negozioa egiten ari dira euren balantzeak garbituz. EBZk loditzen ditu, eta badaki.

Jakina eta nabarmena da bankuak, batez ere etxegintzan azken urteetan egindako apustuarengatik “zulo” ugari dituzten Espainiako bankuak, diru publiko hori aprobetxatzen ari direla euren burua finantzatzeko. Hala, EBZren %1eko maileguak erabiltzen ditu zor espainiarra, italiarra eta greziarra %5 eta %9 arteko interesarekin erosteko. Bankuek Balore-Burtsan espekulatzen dute EBZk ekonomia azkartzeko uzten dien diruarekin. Azkenean Estatua da –zergadunak alegia– bankuen “zuloak” estaltzen dituen. Logikoa da, beraz, krediturik ez ibiltzea enpresa eta familietan. Logikoa da, beraz, murrizketa sozial gehiago inposatzen joatea. Kapitalismoaren logika da bankuak loditzen dituen eta milioika pertsona gosera eta langabeziara jaurtitzen dituen.

Juan Mari Arregi



Atez atekoa, aukera bat

EZTABAIDA LATZA eta askotan zikina gertatzen ari da Gipuzkoan zaborraren inguruan eta horrek baditu oinarritzko bi irakurketa. Batetik, gure gizarte industrialetan eta kontsumo zaleetan dagoen arazo garrantzitsuenetakoa da zaborrarena, ongi etorria, beraz, zaborraren eztabaida orokorrari. Orain lortu beharko litzatekeena da arazoa kokatzea eta herritarrari zaborraren kudeaketaren inguruan diren oinarritzko arazo eta irtenbideak planteatzea. Hasteko, has gaitezke aitortzen erabat oinarritzkoa dena: arazoei buruz asko dakigu, irtenbideei buruz askoz gutxiago, eta gainera ez da horretan behar adinako indarrak jartzen.

Bestetik, logikoa da halako eztabaidetan berotasun maila handia izatea, baina oso garrantzitsua da herritarra eztabaidaren muinean kokatzea eraso dialektiko hutsera bideratu gabe. Eta kasu honetan erraza da halakoetara desbideratzea, atez ateko sistema instituzioetatik orain Bilduk bultzatzen duela, ezker abertzalea hor dagoelako akuilu lanetan eta gizarteko sektore baten aurrean oso erraza delako saltzea hauek dena nahasten, zikintzen eta inposatzen dutela, "beti moduan"; urteetako joko politikoak horretarako aukera bikaina ematen du egun ere. Institutuzio, alderdi, elkarte eta hedabideen ardura beharko luke eztabaida hori zentzuz egin dadila bultzatzea.

Denbora berriak bizi ditugu eta saihestu beharko genuke "on eta gaiztoen" eskema sinple eta desegoki hori. Atez atekoa Bilduk bultzatzen du hemen, baina baita gizarteko beste sektore askok ere: Ezker Batuak, Ezker Anitzak, CiUko sektore batzuk, Greenpeacek, Equo alderdi berriak, beste talde ekologista askok... Ezker-eskuin ideologia klasikoa gainditzen duen gaia

da, besteak beste, ezkerrek eta eskuin klasikoek eman dituzten erantzunek ez dutelako hemen balio. Zergatik?

Ez dute balio izan, biak ala biak oinarritu izan direlako ekonomiaren hazkunde maila handien lorpenean. Eta hala da egun ere. Horrek arazo handiak sortzen ditu maila guztietan, egungo ekonomia krisi latza, edo arazo klimatikoa, energetikoa... eta, besteak beste, zaborrarena. Hor du bere abiapuntua zaborraren eztabaidak: zergatik ekoizten dugu hainbeste zabor? Nora garamatza eredu horrek?

Zilegi izateaz gain, atez atekoak merezi du aukera bat, besterik ez bada Zabalgarbik berea duen moduan

Alfonso del Val adituak argi azaltzen du gairen arima LARRUNeko 155 zenbakian (2011ko ekaina): "Kalkulatuta dago, Europar Batasuna (EB) 17 herrialdek osatzen zuten garaian, europar bakoitzak urtean baliabide naturalen 50.000 kilo kontsumitzen zuela. Kontsumitzen ditugun baliabideetatik hondakin bihurtzen ditugu %87-93, airera, uretara edo lurrra doazenak (...) Ez daukagu hondakinen fakultaterik unibertsitatean, nahiz eta horixe izan gizakiok gehien produzitzen duguna (...) Hondakinen fisikarik ez dago". Horra eztabaidaren gakoa. Nola egin aurre arazoari? Hainbat modu daude edo egon daitezke.

EUROPAR BATASUNEKO legedi horren funtsa hiru printzipiotan oinarritzen da: gutxitu, berrerrabili, birziklatu. Beste talde batzuek era zehatzagoan definitzen dituzte hiru printzipio horiek: zero zabor. Hau da,

bila dezagun oreka naturarekin eta ez dezagun ekoiztu naturara itzulera ezin dezakegunik; eta, gaur egun hori posible ez bada, egin dezagun bidea horrantz abiatzeko eta hementik 50-100-200 urtera posible izan dadin edo zero zaborretik ahalik eta gertuen egon gaitezen.

Azken finean, erraustegiaren ereduaz eguna da Euskal Herrian, Zabalgarbirena da bere bertsio modernoa. Bere aldekoen oinarritzko argudioa: "Bai, ondo, birzikla dezagun eta nahi dena, baina soberan dugun zaborra erre eta honekin energia lor dezagun; Europar egiten dute eta ez dago arriskurik".

Atez atekoaren oinarritzko argudioa: "Erraustegia kaltegarria da osasunerako, zaborra behar du bere iraupenerako eta, beraz, ez zaio zaborra gutxitzea interesatzen, alderantziz. Atez atekoarekin inoiz lortu den zaborraren sailkapen eta birziklapen handiena lortu da. Jarraitu dezagun bide horretan edo emaitza bertsuak ematen dituzten bestelakoetan eta arazoari adarretatik helduko diogu".

Zilegi da pentsatzea bata zein bestea direla egokienak, baina egin bedi eztabaida zentzuz eta ez harrika. Eta atera ditzala ondorioak herritarrak. Funtsean, orain arteko logikaren ikuspegi modernoa eskaintzen du erraustegiak, sortu duen sistemara modu ikusgarrian egokitzen da: kontsumitu, erre eta energia sortu, horra hiruki perfektua. Atez atekoa berria da euskal gizartean, zaborra herritar bakoitzaren arazo ere bihurtzen du, ohitura aldaketa dakar eta emaitza ikusgarriak eskaintzen ari da, Gipuzkoako lau herritako emaitzek erakusten duten legez. Zilegi izateaz gain, merezi du aukera bat, besterik ez bada Zabalgarbik berea duen moduan.



Fukushimako hondamendiaren lehen urteurrena

Mundua giza-kate, kanpaldi, bilkura eta meeting antinuklearrez beteko da martxoaren 11n, Japoniako Fukushima egun horretan hasitako triskantza nuklearra oraindik pozoï-dariola dagoela oroitarazteko. Nahi balu ere ezingo genuke ahaztu, 25 urte lehenago Txernobylen gertatua ezin dugun moduan: bizi-bizirik darraite tamalez.

GEORGES BAUMGARTNER BIDALI DU Suitzako TSR *Tele Suisse Romande* kate publikoak Fukushima inguruetara, han gauzak urte beteren buruan nola diren ikuskatzera. Fukushima departamenduko gobernadore izandako Eisaku Satorekin bisitatu ditu zentral nuklearraren inguruak, itzulitakoan *C'est la zone!* erreportajea egiteko. 11 minutuko erreportajeak frantsesez eskaintzen duena hemen euskaraz kasik hitzez hitz emanen dugu, bideoa —ARGIA-ren webgunetik erraz eskuratzen da— ikusi nahi duenaren lagungarri.

Eisaku Satok babesgarriak jantzi ditu Fukushima inguruetan sartze-ko, autoaren ondoan. Prefektura hartan gobernadore izana da 18 urtez. Garai hartan salatu zuen TEPCO konpainiak informazio faltsuak ematen zituela zentral nuklearrereko istripuez. Orain kazetariarekin ikusi nahi ditu zona debekatuko eremuak, Europarako bidea hasi aurretik.

Zentralaren inguruko hesietara iritsi da ekipoa. Lau erreaktoreetatik bi urtu egin ziren eta menturaz barruan zeukaten erregaiak zulaturik dauzkate ontziak. Badirudi okerrera saihestu dutela orain arte. Gobernuak deklaratu du erreaktoreak hotzean geratuta daudela, 100 °C azpitik. [Otsailean 2. erreaktorean tenperatura askoz gehiago igo

da, aditu batzuek diote fisio katea ez dela gelditu].

Yukiteru Naka doa kazetariakin, zentralaren eraikuntzan arduradun izandako ingeniaria. Babes-jantzirik gabe, harrigarria. Hamar minutu daramatzate hesi ondoan eta erradiazio mailaren mugara iritsi dira, alde egin beharra dago. Tartean TEPCO-ko guarden kontrola pasa beharko dute, legez etorriak izan arren.

TEPCOk informazioa ezkutatzeko duela diote askok, inork ez daki zentrolean zer gertatzen den. Enpresaren eta gobernuaren arteko konplizitatea, Eisaku Satok aspaldi salatu zuena, ez da aldatu Fukushimako istripuaz geroztik.

Zentralaren ataritik pasa dira, ezin da sartu. Erreaktoreak kontrolatu nahian ari diren langileak lehen Japoniako futbol taldeak entrenamenduetarako zerabilen eraikinean dauzka TEPCOk, zelaiak parking. Egunero 3.000 langile ari dira barruan, baina erreaktoreetaraino hurbildu gabe, erradiazioa handiegia da oraino.

18.000 langile txandakatu dira istripua kontrolatzeko ahaleginean. TEPCOk diluitu egin nahi luke horiek hartu erradioaktibitatea. Tokioko Toranomon ospitaleko Suichi Taniguchi doktoreak salatu du langileen osasuna ez dela zehaztasunez kontrolatzen. Langileen zerrendarik ez da. Erradioaktibitatea neurtzen

The Science of Conundrums blogetik hartutako argazkian, polizia japoniarraren kontrola Minamisoma hiri inguruetan, gune debekaturako sarbidea galarazten. Poliziak bideak eta ahoak itxita, Fukushima istripuaren ondoren agintariak, industriak eta hedabide nagusiek elkarlanean lortu dutenaren metafora bailitza. Abenduan adierazi zuen Tokyoko gobernuak Fukushima Daiichiko erreaktoreak hotzean egonkortzea lortu zutela, eta komunikabide guztiok egin zioten oihartzun. Alabaina, otsail honetan matxuratutako erreaktoreetatik bigarrena tenperatura kezkarrietaraino berotu dela zabaldu dute Fukushima jarraipena egiten dioten blog eta webgune ondo informatuek, usinak lurrana jaurtitzen dutela ere erakutsi dute zenbait bideok. Agintariak adierazi dute 40 urte beharko direla zentrala osoki desegiteko: otsailekoa bezalako susto gehiago izango dira.

hasi zitzaizkien maiatz-ekainean, hamabostean behin aztertu beharko lituzkete, baina ez dute egiten.

Yukiteru Nakak kazetariak daramatza lurrikara eta tsunamia baino urte bete lehenago Fukushima inguruan eraiki zuen txaletera, Fukushima Daiiniko zentralaren ondoan. Tsunamiak ez zuen hainbeste kalte egin. Nakak karrera osoa General Electricen egin du eta Fukushima-koaren eraikuntza gidatu. Etxean ordularia lurrikararen orduan dago geratuta: 14:46.

Nakaren bilobak asko dibertitzen ziren txaletean. Ezingo dira itzuli. Baina ez dauka kexatzerik, dena galdu duten milaka jendeen aldean. Uste du istripu nuklearra saihestu ahal izan zela, langileak emergentzia hartarako prestatuak izan balira.

Herri kutsadura itzuli ala ez?

Kotsuya Endo Tomioka herriko alkatea da. Koriyama hirian aurkitu dute, lekualdatu dituzten erkideekin. Herrira itzultzea da beretzako lehentasuna, TEPCOren kalte ordainak eskuratuta. Kazetariak Tomiokara doaz gero. Zonalde debekatuan dago. Langileak ari dira lurzoruari eta lurpeko urei kutsadura kentzen. Zertarako saiatu, ordea, oraindik erreaktoreak atmosferara partikula erradioaktiboak isurtzen



ari badira? Kamerari urrutiratzeko, erradiazioak handiegia dira.

Naka ingeniariarentzako, zona kutsatua garbitzea garestiegia izanen da. Itsasoari kutsadura kentzea, ezinezkoa. Hobe zona hau bihurtzea hondakin nuklearrak metatzeko gune, parke nazional edo memorial edo erradiazioek ingurumenean dituzten kalteen ikergune.

Tomioakako kaleak famatuak dira gereziendoengatik. Alkateak gonbidatu ditu herritarrak loraldian itzultzera, itxaropenari eusteko. Ryo Sugimoto udal langilea daramate gidari. Haur txiki bat dauka. Nekez itzuliko dira kutsadura apalduta ere. Aldiz, zaharrek itzuli nahi dute, jaiotako lekuan hiltzeko. Trenik ez Tomioakako gelto-

kian. Arimarik ez TEPCOk indar nuklearra promozionatzeko eraiki parke tematikoan; Edisonen eta Curie senar-emazteen etxeen errepelik dauzka.

Eisaku Satok ikasgaia azpimarritu die kazetariei. Nuklerrak dira herrialde baten heldutasun demokratikoaren neurgarri. Polizia-estatu bihurturik, zentraletan pasatzen dena ez dizute sekula ikusten utziko.

Kawauchi herria bitan zatitua da, erdia gune debekatuan, beste erdia libre. Yuko Endo alkateak itzultzeko konbentzitu nahi ditu herritarrak, aterpeturik dauzkaten Koriyaman baino erradiazio gutxiago dagoela, ez dutela utzi behar herria hiltzen Txernobyl inguruko askorekin jazo bezala.

300 bat baizik ez dira itzuli. Shi-geru lidek jatetxea ireki du berriro Kawauchin. Itzuli egin behar dela dio, gobernuak ez dituela TEPCO-ren biktimak betiko lagunduko, bakarrik moldatu beharko dutela.

Koriyama, zentral nuklearretik 60 kilometrorra, 300.000 biztanle. Hemen babestu dira zonalde debekatutik kanporatutako herritar asko. Baina gaur Koriyaman erradioaktibitatea handiagoa da gune debekatuan baino. Hemen bizi da Eisaku Sato, Fukushima prefektu ohia.

Nuklearrak gainbegiratzeko erakundea METI Industria Ministerioaren menpe dago. METIk abian jarri nahi ditu geldituta dauden zentralak, eta industriarekiko konplizitate sekula baino handiagoa da. Sinestekoa da Satoren hitza. METIko funtzionario izana. Gobernadore zela ikusi du informazioak nola ezkutatu zituzten. Ez du sinesten Japoniako Segurtasun Nuklearreko erakundeak nuklearrak ondo gainbegiratu ditzakeenik.

Agintari politikoen eta enpresen arteko lagunkeriaren eragina boro-biltzeko, Japoniako komunikabide nagusiek ez dute auzitan jartzen energia nuklearra. Erreportajearen azken irudiak: 2011-2012ko neguan Sato kamera hartuta dabil zonalde debekatuan, hor den mendetako kultura desagertu ez dadin ahaleginean.

Georges Baumgartnerrena bezalako bideoak eta informazioak eskueran daude sarean, nahiz eta hedabide nagusietara ez diren iristen. Begiratu egin behar. Internet hor egonik, Fukushimaz ez dakienik bada, nahi duelako da. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Iñaki Mendiguren

Euskal Harriak

Lotsa guztiak galdurik, oraingoan liburu bat gomendatu nahi dizuet: *Euskal Harriak*, Joseba Azkarraga Etxagibel-ena (Alberdania, 2011).

Ez da liburu asko argitaratzen euskaraz honek duen gaiaz, baina hori, beste merezimendurik gabe, ez litzateke aski arrazoi gomendatzeko. Liburu honek, ordea, zer pentsa asko ematen du; hortaz, buru-nekerik nahi ez duenak ez dezala irakurri, eta segi dezala telebista ikusten (izan-go ditu ...*circenses*, eta zenbat eta urriago *panem*, orduan eta ugariago!). Are gehiago, liburu honek kezka eta egonezina sortzen dizkizu; beraz, egungo egoeran bestela ere nahi-koa buruhauste baduela eta “bertan goxo” jarraitu nahi duenak ez dezala irakurri. Izan ere, liburuak esaten digu (era askotara eta modu aberatsean esan ere) krisi ekonomikoaz gain, energia, klima, ekosistemak, gizartea, elikagaiak, kultura, hizkuntzak eta alderdi psikiko-espirtuala, dena dugula krisian eta arnasestuka, zibilizazio-krisia delako gurea.

HUHEZIKo irakaslearen arabera (eta ez da lehenengoa eta bakarra hau esaten), honela ezin dugu jarraitu; hazkunde mugagabearen paradigma bukatzen ari da, eta hazkunde-osteko garaian sartuta gaude, zibilizazio moderno-industrialaren beheraldian, alegia.

Soziologoaren kezka da nolakoa izango ote den beheraldi hori: ordenatua, emankorra eta oparoa, ala desordenatua, kaotikoa eta hondagarria. Iritzia ematen hasita, iruditzen zait bietatik izan dezakeela etorkizunak, eta dagoeneko gertatzen ari den zer-bait areagotuko dela: eskaria gehitu eta lehengaiak gutxitu ahala prezioek gora egingo dute, eta horrek bizimodu iraunkorrrak bilatzea ekarriko du, orain baino serioago; bestetik, ordea, kontsumoa gutxitzea ekarriko du ezinbestean, eta hori, ohi bezala, zuzentasun gutxirekin eta ahulenak larrutik nozituz egingo da. Kalkulatzen



DANI BLANCO

dute azken urtean Britainia Handian 25.000 lagun hil direla berokuntza eskasagatik, eta hori erregaiei prezioak asko igo direlako urteotan eta gobernuak kendu egin dielako pentsiodunei berotzeko ematen zien dirulaguntza (BBC, otsailak 8).

Liburua irakurri ondoren, baliteke abadi-noarra profeta apokaliptiko samarra dela pentsatzea norbaitek. Ez dakit, baina profetak, bere neurrian, ez al dira oso beharrezkoak gizartearen osasunerako? Liburu honek oheburuko lagun (ez bakarra!) izan beharko luke bere bizitzan gero eta koherentzia handiagoaren bila dabilenarentzat, eta zer esanik ez *res publican* eragin nahi duenarentzat: sindikalista, politikari, gizarte-eragile eta abarrentzat. Eta bakoitzak irakurri ondoren, besteekin iritzitrukerako materiala izan beharko luke. Makina bat eztabaida zozoago entzuten da bazterretan!

Susmoa dut, oraingoan, gu gehienok (eta pedagogia gehien egin beharko lukeen herri-agintariak barne) etorkizuna atzera begira eraiki nahian ote gabiltzan, egungo beheraldi zorigaitz-toko hau lehenbailehen


gainditu eta galdutako oparoaldia bere hartan berreskuratzeko itxaropenez, alegia. Horren adibide, Petronorrek, gasolinaren eskaria jaitsi dela-eta, ekoizpen-murrizketak iragartzean batzuek egindako adierazpenak; edo zabor-bilketaren inguruan egunotan ikusitako jarrera batzuk; edo kontsumoa (auto-salmenta eta abar) jaistean entzun diren intziri eta aieneak...

Ez dakit nola aterako garen bizi dugun kinka honetatik, baina baliteke iraganean tematzea alferrikakoa eta azkenean etsigarria izatea. Dorre tzarrek lilura elektrikoa sortzen diguten garaiotan (*c'est drôle!*), ez ote genuke hobe herri txikiaren konplexuek-edo eragindako handikeriak ahaztu eta beste apaltasun batez bizitzeko asmoa hartzea? ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Tarpoon Urpekaritza

3 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiorako
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpoon.com

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2312. Argia)

TXONDORRA erretegia

- Dionisio Sasieta Telleria (Ezkio-itsaso)

KAOTIKO zuzeneko indarra CD-DVDa

- Edurne San Martin Larrañaga (Eibar)
- Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)
- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)
- Redondo Jaun Andreask (Hernani)

MUNDUKO IPUINAK

- Aitor Atxega Zubikarai (Larraul)
- Edurne Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Azkune Arrizabalaga Sendia (Azpeitia)
- Felipe Iruretagoiena Elortza (Zarautz)
- Kari Lopez Davalillo Bañuelos (Galarreta)
- Karmen Alvarez Yagüe (Donostia)

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS zazpikoloroa CDa

- Kandido Eizagirre Soraluze (Donostia)
- Miren Olabarria Arana (Bergara)
- Euskararen Irakaskuntzarako
Baliabide Zentrua (Uharte)
- Ardatza Aldizkaria (Gasteiz)
- Manu Urruzola Aranzabe (Alkiza)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea



Eskubide bat eta krisialditik
irteteko neurri bat

LANDU BERDINTASUNA

Enpresetako berdintasun-politikek **emakumeen talentua aprobetxatzen dute**, eta krisiari aurre egingo dion **eredu sozioekonomiko berri bat** sortzen dute, justuagoa eta eraginkorragoa.

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna

